

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko irailaren 5a / 640. zenbakia



MUGI ZAITEZ!!!

AUKEAK gertu du 2003-04 ikasturteko kirol eskaintza

GAINBEGIRATUA: ENRIKE LETONA BERRIRO ESPETXEAN/6 • KULTURA: EXTREMADURA EGUNA/14

ARGAZKIA: XABIER URZELAI

GREMIOEN GIDA/2

Etxeko konponketak

Elektrizitatea



Aranzabal Koop. E.
Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana 16 behea
(Aretxabaleta)
Tel.: 943 79 17 53

Leihoak



ARGÍ PLASTIK

PVC, aluminio termi-
ko eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.
Tel./ Faxe.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18



RRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak
24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor. 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2-behea
Tel.: 943 77 08 88

Iturgintza - Bainuak
Gasa - Berogailuak



ION LEIHOAK

PVC • Aluminioa RPT
Poliuretanoa • Bitarikoak

Ateak • Zoluak

Kanpantorpea 2-behea • ARRASATE
Tel./Faxe.: 943 79 11 35

Margoak

Apain

MARGO ETA APAINKETA

Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85



ZUTARRI s.l.

Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.

Tel.: 943 79 67 78 Faxe.: 943 77 10 09

Eraikuntzak



10.000 KOLORETAKO MENUA
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87

Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

Berecibar

Santa Marina 34 • Tel.: 943 79 09 63

Igeltserotza



**Izcue
Irurzun**

Igeltserotza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...


Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

**Gremioen Gidan
agertu nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91
telefonora**

KALEINKESTA/ Nun harrapau zinttuen abuztuzko beruek?



PAGO MORALES
Langillie



ANGEL MARIA RAMOS
Langillie



DANIEL LOPEZ
Jubilae



JAVI GUARDO
Langillie



AURORI MORALES
Langillie



OSANE HERRARTE
Langillie

Guk ez dogu bero haundirik pasau. Almerian egon naz, eta urteroko tenperaturie egin dau han. Hona deketan neuenien, zelaikek larutute euzela esaten eustien.

Ni Saloun egon naz, eta bero haundixek pasau dittu. Egunien ziber, haixie ebillen lekuetara jueten nitzten eta gabien, korrientie egitten ahaleginketan gitzen. Hala eta be,...

Mondraguen egon naz, eta egun batzuetan termometruak 42 gradu marketan zittuen. Ez dot gauza berezirik egin: etxien egon, lasai, eta ur asko edan, baitte ardaue be! (Barriek)

Mondraguen egon naz, lanien. Hillebete txarra izen da lan egitteko, egun dana izerdi baten emun dot-eta. Nahiz eta aire akondizionaue euki, larri ibilli gare, edan eta edan.

Kordoban eta Malagan egon naz, eta Kordoban oso txar-to pasau neuen: 47 gradu marketan euen termometruak. Aire akondizonaue, bentiladoriek, abanikue... Dana zan biherrezkue.

Gu Marokon egon gare, Atlas mendixetan. Han bero egitten euen, baiñe ez hamen moduen. Hona etorri garenien, harrittute geratu gare zelaixek daukien kolorie ikusitte.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK KONPONDU BEHARREKO HOBIA Kasino elkarteko erakina zena orain dela gutxi bota dute, eta hura zegoen lekuan hobi bat dago oraindik. Hobi hartatik ur zikina, usain txarrekoa, ateratzen da eta Ferrerias kalera jaisten da. Hala, Ferrerias kaleko bizilagunak eta alboko tabernara, Iratira, joaten diren gazteak kexatu egin dira usaina dela-eta. Norbaitek arazo hori konpondu beharko du!

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /8

Etxebizitza berriak

IFAM enpresa zenaren atzealdean etxe berriak eraikitzen dabil-tza, eta ingurua txukuntzen.

KIROLA /12

Mondra sasoi betean da

Denboraldiaurre ona egin du Mondrak, Bergarako eta Arrasateko futbol txapelketak irabazita.

ZAHARRAK /17

Gastronomia Txapelketa

Eguenean, uztailearen 11n, Eskualdeko Gastronomia Txapelketa egingo dute Abaroan.

ASTEKO DATUA

303

HORMA-HILOBI FALTA DIRA ALDAIKO HILERRIA HUSTEKO

Arrasateko Udalak jakinarazi duenez, 1991n, 92an, 93an eta 94an hildakoen gorpuzkiak jasoko dituzte aurtengo abenduaren 1etik aurrera; guztira 303 horma-hilobi hustuko dituzte.

BESTE EKESANA

“ (Opor osteko depresioa) ez dakigu ziur existitzen den, benetakoa den edo ez. Iritzi kontrajarriak daude. Sintoma fisikoak takikardiak, zorbioak, burukominak... dira; psikikoak edo somatikoak, osteria, antsietatea, estresa, logura falta etab... dira. Gomendagarriena da jarrera positiboa edukitzea, lanean opporren gainean berba egitea, kirola egitea... Hori baino gehiago, aproposena da lanean hasi baino egun batzuk lehenago oporretatik etortzea. Hala ere, egoera horrek hiru-lau egun irauten du. Hala ez bada eta sintomak denbora gehiago irauten badute, ez da opor osteko depresioa; beste zerbait da. Opor osteko depresio hori ez duten bakarrak langabetuak eta lanaren zale amorratuak dira”

SARA VITORIA
ARRASATE IRRATIA/03-08-01

HERRITARREN BERBAK/ Aitor Zabalo



Oporretatik bueltan

Aurtengo oporrak bitxiak izan dira, ezohiko gertaera batzuk eman dira behintzat. Niri gehien harritu nauten gertaerak honako hauek izan dira: Askok sumatu den egoera berezi bat egin duen beroarena da. Aurreko urteko arekin konparatuz, aldaketa oso handia izan da. Denon onerako, espero dezagun urtetik urtera tenperaturak gorago ez egitea, sikatuko gara, bestela.

Esaten dutenez (eta egia izango da) gizasemeok dugu horren errua, eta berandu bada ere zerbait egin daiteke oraindik. Pena litzateke gure Euskal Herri polit honek bere edertasuna galtzea.

Aurrekoarekin zer ikusia duena ere begi-bistan izan da. Egin duen beroarekin eta itsasora sartzeko beldurrez. Prestige-ren zikinak gure kostaldeetara iritsi eta iritsi egon dira. Lotsagarria benetan hau horrela ikusita ez dela

ezer gertatu esaten jarraitzea. Batzuek hori diote.

Harritu nauen beste gai bat honako hau da: lehena diru eskasiarena. Jendeak diru gutxi du eta hemen geldituz gero, dirua aurrerratu egiten du. Bigarren arrazoiak, berriz, lan kontuekin du zerikusia.

“Aurtengo oporrak bitxiak izan dira, eta ezohiko hainbat gertaera latz eman dira sasoi horretan”

Lantegi gero eta gehiagok ez dute abuztuan beren atea ixten, eta horrek denok oporrak garai berdinean ez izatera garamatza. Horrela zailtasunak izaten dira lagunekin edo familiarekin batera oporretara joateko.

Azkenik, pena handiz, sumatu dut oporrak ere bere alde txarra badutela. Arrasatear denok tristatu gara bueltatu ez diren gazteei pasa zaiena jakitean. Benetan egoera gogorra dela, batik bat familia eta ezagunentzat. Animuak eman nahiko nizkien guztiei. Beste guztiei esan gura diet berriz kontuz ibil gaitzela hastera doan kurtso berri honetan. Ea ditugun asmoak betetzen ditugun!

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA

Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA

Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA

Arantazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA

Agurtzane Gainzarain
Ane Bereizbar
Iratxe Bengoa

BANAKETA

Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA

SS-1124/88

ISSN

0214-4654

TIRADA

7.350 ale

Goiena
Kontsumakizko Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 5**
Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- ZAPATUA, 6**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 . . . 943 79 22 26
- DOMEKA, 7**
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 8**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65
- MARTITZENA, 9**
Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 10**
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 . . . 943 79 22 26
- EGUENA, 11**
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30
- EGUBAKOITZA, 12**
Español, Araba etorb. 17 943 79 18 65

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Delak 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelenehenetik
egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . egun osoa
- Arrasate**
Astelenehenetik
egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea. 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZAK**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTZAILIAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. . . . 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA: 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

- OHARRAK**
- URIBARRI- ERGUINGO JAIK**
Egubakoitzetik, irailaren 12tik, domekara bitartean Uribarri-Erguingo jaiak ospatuko dituzte. Jaiak 19:00etan hasiko dira, etxafuegoekin eta trikitilariekin. Gero meza egongo da eta mezaren ondoren erretiratuak afaria izango dute. Eguna bukatzeko, Gau Alai taldearekin erromeria izango dute. Zapatu goizean umeendako jolasak egongo dira, eta gauean erromeria, Kaixo taldearekin. Domekan herri kirolak eta bertsolariak -Aitor Mendiluze eta Ekaitz Goikoetxea- izango dira, baita Gorriti eta bere animalien ikuskizuna ere.
- EXTREMADURA EGUNA**
Bihar, zapatua, Corazon de Encina elkarteak Extremadura Eguna ospatuko du Landako urtegiari. 10:30etik hasita eta egun osoan, jaki goxoak dastatzeko aukera egongo da, baita gazte eta nagusientzako jolasak ere. Irailaren 8an, Corazon de Encina elkartearen ohorezko topa egingo dute, 19:30ean.
- ODOL ATERATZEAK**
Hasi dira odol ateratzeak egiten, eta emaleak behar dituzte. Anbulatorioan egongo dira, martitzenean eta eguaztenean, irailaren 10ean eta 11n.

- MEZAK**
- | | |
|-------------------------------|------------------------------|
| San Joan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua | Zapatua |
| 19:00 (elebiduna) | 19:00 (elebiduna) |
| Domeka | Domeka |
| 09:00 (gaztelaniaz) | 10:00 (elebiduna) |
| 11:00 meza nagusia (euskaraz) | 11:00 (euskaraz) |
| 12:30 (elebiduna) | 12:00 (gaztelaniaz) |
| | 13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua | Zapatua |
| 19:00 (elebiduna) | 19:00 (elebiduna) |
| Domeka | Domeka |
| 09:00 (euskaraz) | 11:00 San Isidron (euskaraz) |
| 10:00 (gaztelaniaz) | 12:00 (gaztelaniaz) |
| 11:00 meza nagusia (euskaraz) | 12:00 (gaztelaniaz) |
| 12:30 (gaztelaniaz) | |
| 19:00 (gaztelaniaz) | |
| Uribarri parrokia | Santa Marinako eliza |
| Zapatua | Jaiegun bezpera eta zapatua |
| 19:00 (elebiduna) | 19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka | Domeka |
| 11:30 (euskaraz) | 12:00 (gaztelaniaz) |
| 12:30 (gaztelaniaz) | |

- AEDrenAGENDA**
- ZAHAR BERRI**
Zahar Berrin euskaldun berriak eta euskaldun zaharrak behar dituzte elkarri euskara praktikatzen laguntzeko. Jo AEDra izena ematera.
- 'BERRIA'-REN AKZIOAK**
Berria egunkariaren akzioak oraindik salgai daude AEDn. Jo AEDra bulego orduetan, goizez edo arratsaldez.
- URBANOENORDUTEGIA**
- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.I. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Inbertsio handiak Aita Menni erietxean


Orain dela hamar urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak Aita Menni ospitale psikiatrikoan 2.000 milioi pezetako (12 milioi euroko) inbertsioa egiteko hitza eman zuen. Diru horrekin bost erakuntza berri egin gura zituzten eta gaixoentzako zerbitzua hobetu gura zuten.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Unamunixua"

Armonia ona, familiako edo lagunarteko giro ona. Unamunixo txarra ez omen da esaten. —Familixa ortan dago unamunixua.




ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Enrike Letona presoaren egoera

Enrike Letona preso arrasatearraren egoera aztertu dugu aste honetan, haren anaia Agustin Letona eta lagun Juan Luis Arexolalebarekin. 16 urte espetxean egon ondoren, uztailen berriro ere kartzelan sartu zuten Enrike. Elkarrizketa zapatu eta domekan entzuteko aukera izango da, 11:00etan. Era berean, Maider Osa lankide ohiarekin izandako solasaldia ere errepikatuko dugu. Hainbat urtez telebistan lanean ibili ondoren, beste lan bati heldu dio.



Martitzenean, Vietnam ezagutzera

Udan lagun askok atzerrira jo dute beste herrialde batzuk ezagutzera, eta orain, etxera bueltatutakoan, irrattira gonbidatu ditugu horietako batzuk. Martitzenean, esaterako, 10:00etan Vietnameraino hurbilduko gara Jose Manuel Ezkerrarekin. Bestalde, astelehenean, 09:30ean, eskola publikoan lan egingo duten irakasle batzuekin egingo dugu berba. Asteazkenean zozketa dute irakasle horiek, non lan egingo duten jakiteko.

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 27	14 °C
MAXIMOA Eguaztena, 27	36 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	10,8 L
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 27	36 °C 14 °C 0,8 l/m²
Eguena, 28	28 °C 17 °C 0,3 l/m²
Egubakoitza, 29	28 °C 16 °C - l/m²
Zapatua, 30	23 °C 15 °C 2,3 l/m²
Domeka, 31	24 °C 15 °C 5,4 l/m²
Astelehena, 1	19 °C 15 °C 2 l/m²
Martitzena, 2	23 °C 15 °C - l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
- 09:00-11:00 **UDA GIROAN Albistekak.** Elkarrizketak. Hondartzen, igerilekuen eta urtegiaren egoera. Eguraldi iragarpena. Agenda.
- 11:05 **Musika.**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **UDA GIROAN errepikapena.**
- 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- ZAPATUA**
- 11:00 **Asteko elkarrizketak:** Agustin Letona eta Juan Luis Arexolalebar, Enrike Letonaren egoera aztertuz. Maider Osa, Goiena Telebistako aurkezle ohi. Sara Vitoria psikologoa, Kubara egindako bidaia eta opor osteko depresioaz. Eta abuztuan ibarrean turismorik izan ote den ere jakingo dugu.
- DOMEKA**
- 11:00 **Asteko elkarrizketak**

ASTEABIHITZETAN

Auto istripua Toledon

Domeka goizaldean, 39 urteko S.H. mondragoetarra hil zen Toledon, auto istripuan. Hiru familiakide zihoazen autoan: J.I.A. eta T.H. senar-emazteak eta S.H., hirurak mondrago-etarrak.

Cadizen opor egun batzuk egin eta gero, Segoviara zihoaz, familia bisitatzera. Baina autoa errepidetik atera eta irauli egin zen. Kolpearen ondorioz, S.H. 39 urteko arrasatearra hil egin zen. Senar-emazteak, berriz, hainbat kolperekina baino onik daude.

Geroago eta turista gehiago gurean

Aurtengo udan jende asko etorri da Debagoienara oporretan. Freskura bila etorri denak ez du zorte handirik izan, baina beste era bateko turismoa egiteko aukera izan du. Hirietako eta kostaldeko masifikaziotik urrun, geroago eta gehiago dira leku lasaiagoen bila ibiltzen direnak.

Debagoieneko turismo bulegoek kontsulta ugari jaso dute uda honetan. Gehienak gure herriko kultura eta monumentuak ezagutzera etortzen dira. Monumentuen edertasunaz gain, Debagoienak badu beste edertasunik: paisaia ederraz gozatzeko aukera ezin hobea.

Diputatu nagusia MUn

Gipuzkoako ahaldun nagusi Joxe Joan Gonzalez de Txabarrri eta berrikuntza diputatu Joaquin Villa Mondragon Unibertsitatea bisitatzera etorri ziren eguaztenean. Inaxio Oliverik, MUKo errektoreak, unibertsitatearen proiektua aurkeztu zien Aldundikoei.

Mondragon Unibertsitatea bisitatzear gain, Garaia Berrikuntza Gunera gerturatu ziren, eta HUHEZIKo Eskoriatzako instalazioak eta Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultatea ere bisitatu zituzten.



Hainbat auto jo eta ospa egin

Martitzen goizaldean, auto batek Zarugalde kalean aparkatuta zeuden hainbat auto kolpatu zituen, tartean argazkian azaltzen den autoa. Bazter bietan aparkatuta zeuden autoak jo, eta alde egin zuen. Martitzen goizean udaltzainei egokitu zitzaizkien autoen jabeek berri txarra ematea.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Beste ikasturte bat

Abuztua joan da eta poliki-poliki iraileko egunerokotasunean sartu gara. Urteroko kontua, badakizue. Arrasatear askok oporretan kanpora jo dugu eta kanpoko lekuak bisitatu ditugu. Zoritxarrez, errepideetan istripu mordoa izan dira, eta Arrasate ere ez da salbuespena izan. Atzerrian eta Espainiako Estatuan Arrasateko hainbat lagun hil

dira, eta herriak kolpe handia jaso du. Horrez gain, aste honetan langile bat Markuleten hil da, lan-istripuan. Hori bai, ikasturtea hasteko modua.

Bestalde, denak ez dira albiste txarrak. Euskal Herriari dagokionez, iraila esanguratsua izango dela esan eta esan ibili dira. Horra hor Ibarretxeren plan edo kontsulta. Plan horren

gaineko ezer argitzen ez duten arren, hedabideetan zeresan handia ematen du, behintzat. Badirudi etengabe hauteskunde kanpaina gaudela. Ikusi artean...

Horrekin zerikusirik ez duen arren, aste honetan Holandan ekimen esanguratsua abian jarri dute: hemendik aurrera kalamua farmazietan ere salduko dute. Ea, ba, hemen ere zenbat lagunek erretzen duten kontuan hartuta, antzeko zerbaitegiten duten..

ASTEKOIRUDIA



JULEN ARANGUREN

IKASTURTE HONETAKO EUSKAL HERRIKO LEHENENGO LAN-ISTRIPIUA ARRASATEN IZAN ZEN

Joan den martitzenean, Markulete industrialdean, Garagartzako bidean, 55 urteko barakaldar bat hil zen lan istripuan. Behargina Donostiako Galdiano enpresarentzat pabilioi batzuk eraikitzeke lanean ari zen, baina atzeraka egin zuen hondeatzeko makina batek harrapatu, eta hil egin zuen.

Langile ugari hiltzen dira lanean dabiltzala, gehiegi, eta aurtengo ikasturtean Arrasatek du zorigaiztoko zerrenda horren aurreneko hildakoa. Sindikatuek gogor salatu zuten istripua, eta eguaztenean bi kale bilkura deitu zituzten: bata, ELA eta LABek; eta bestea, UGT eta CCOO sindikatuek. //B.

Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42
Tel.: 943 79 53 32



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aulkiak



TAI CHI ESKOLAK

Antzinako ariketa txinatarrak, gorputza eta burua erlaxatzeko.

Hasiera: maiatzean.
Informazioa eta izenematea
679 642 491 telefonoan.
Lekua: San Viator ikastetxean.
Ikastaro egunak:
martitzenetan eta eguenetan,
20:30etik 21:30era.



ISTRIPUAK ABUZTUAN/ Bi arrasatear Saharan hil ziren, auto istripuan, eta bat Renon

Hiru gazte arrasatear hil dira auto istripuan, atzerrian, joan den abuztuan

ARRASATE PRESS

Atzerriko errepideek ustekabe handiak ekarri dituzte herrira. Abuztuaren 6an, Saharan, Mikel Viteri eta Jon Zabala arrasatearrak auto istripuan hil ziren eta hainbat lagunek zauriak izan zituzten. 13an, Gaizka Larrañaga arrasatearra Renon hil zen istripuan.

Abuztuan hainbat arrasatearrek istripu larriak izan zituzten atzerrian. Besteak beste, abuztuaren 6an Saharan jazotako auto istripu batean bi arrasatear hil eta beste lauk zauri larriak izan zituzten. Edozelan ere, esan beharra dago zaurituek hobera egin dutela nabarmen. Horrez gainera, abuztuaren 13an, Renon (AEB), Gaizka Larrañaga gazte arrasatearra auto istripuan hil zen.

KAMIOI BATEN KONTRA

Saharan hildako bi gazteen senitartekoak eta lagunak atsekabeta daude, eta, gainera, abuztu osoan ezin izan dute atsedetik hartu. ARRASATE PRESSen bitartez gertatutakoa azaldu gura izan dute, herritarrek jakin dezaten eta, ahal den neurrian, eguneroko bizimoduari eusteko saia-kerak egiteko.

Abuztuaren 6an, 22:00ak alde-
ra -00:00ak Euskal Herrian-, sei gazte arrasatear eta bi bergarar Laayoun-etik Darlara (Sahara) zihoazen hiru ibilgailutan. Han-



ARRASATE PRESS

Gazte arrasatearrek Saharan izan zuten istripua, Laayoun eta Darla herrien artean.

dik kilometro gutxira afaltzeko eta lo egiteko gelditzea adostuta zuten, baina heldu baino lehenago aurretik zihoan ibilgailuak eta kamioi batek elkar jo zuten. Kamioiak eta gazteen bigarren ibilgailuak ere elkar jo zuten. Lehenengo ibilgailuan zihoazen Jon Zabala eta Mikel Viteri gazte arrasatearrak kolpearen ondorioz hil egin ziren, eta lehenengo eta bigarren ibilgailuko gainerako lau lagunek zauri larriak izan

zituzten. Hirugarren ibilgailuan zihoazen beste bi lagunek, berriz, zaurituei ezinbesteko laguntza eman zieten.

Istripua gertatu zen lekuan ordu eta erdi egin ondoren, ambulanziek zaurituak ospitaleetara eraman zituzten eta lehen sorospenak eskaini zizkieten. Aurretik, baina, Marokoko polizia ez zituen gazteak modu egokian tratatu istripuaren lekuan bertan; izan ere, maletategiak arakatu eta

agiri eta dokumentu mordoak eskatu zizkieten. Gazteek esan dutenez, polizia marokoarrek uste zuten gazteak sahararren kanpamendu batera zihoazela, eta arrazoi horregatik gazteekin amorratuta zeudela. Ezagun da marokoarrek eta sahararrek duten ezinikusia, baita sahararrek bizi dutena ere.

Edozelan ere, kontsulatuari laguntza eskatu zioten, eta gazteak, taldeka, Kanariar Uharte-

tara eraman zituzten. Han, Kanariar Uharteetan, zaurituetako batzuei osasun azterketa egin zieten, eta egun batzuk geroago Euskal Herrira bueltatu ziren, batzuk elkarrekin eta beste batzuk bakarrik, hegazkinez. Gazteetako batek femurreko lokadura egin zuen, eta Gasteizen operatu zuten. Beste gazte batek lepoan ebaki handia egin zuen, eta Donostian operatu zuten. Lau zaurituek hobera egin dute.

Saharako ospitaleetan zerbitzua nahiko eskasa da, baina hango medikuek, ahal zuten neurrian, zaurituak ondo hartu zituzten. Gainerako lagunak eta Euskal Herrian zeuden senitartekoek lan handia egin behar izan zuten zaurituen eta hildakoen agiri guztiak betetzeko eta bidaltzeko. Istripua izan zutenek eta senitartekoek azpimarratu dute Agadeerko (Sahara) kontsulatu-ko langile batek, Pilarrek, egingako lana ezinbestekoa izan zela. Modu berean, Arrasateko eta Bergarako alkateei eta Antzuolako Udalari eskerrak eman gura dizkiete eskaintakoa laguntza guztiarengatik.

Izan ere, Jon Zabalaren eta Mikel Viteri gazte arrasatearren gorpuak Euskal Herrira ekartzeko lan handia eman zien, zailtasun handiak izan zituztelako. Abuztuaren 15ean heldu ziren bi gorpuak Euskal Herrira, eta 16an hileta elizkizuna egin zuten San Juan Bautista elizan.

Enrike Letona preso ohia berriro espetxeratu dutela salatu zuten

IKER BARANDIARAN

Enrike Letona preso ohia espetxean dago berriro, uztailaren 31n atxilotu eta Auzitegi Nazionalera eraman zutenetik. Maiatzean 30 urteko espetxe zigorra bete zuen, eta kalera irten zen.

Uztailaren 31n, ertzaintzak Enrike Letona etxe ondoan atxilotu zuen, Arrasaten. 08:30ak ziren eta korrika egitera irten zen. Bi hilabete eta erdi lehenago Enrike kaleratzeko baimena eman zuen Auzitegi Nazionalak. Uztailean, osterak, Enrike berriro atxilotzeko agindua eman zuen. 1981eko sumario baten oinarritu zen.

Atxilotu eta egun berean Enrike Letona Soto del Real espetxera eraman zuten, Garzon epaileak eta Fungairiño fiskalak hala eskatuta. Garzonek agindua eman bezain laster oporretara joan zen.

Enrike Auzitegi Nazionalera heldu zenerako Andreu epailea zegoen guardian, eta hark Enrike Soto del Realen espetxeratze-ko agindu zuen. Espetxe hartan egon zen, abuztuaren 18an Valdemoron isolamenduan dago Enrike. Arrasaten hainbat batzar eta kale agerraldi egin zituzten.

IA 16 URTE EGIN ZITUEN ESPETXEAN

Enrike Letona 1987ko urriaren 4an atxilotu zuten, Bildozen, Zuberoan. Hainbat epaiketa izan zituen eta 30 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Kode penalak aurreikusten dituen zigor murrizketa arruntei eta Enrikek berak egindako ikasketei esker, 2003ko maiatzaren 16an aske utzi zuten. Ia 16 urte egin zituen Espainiako Estatuko hainbat espetxetan.


Enrikeren senitartekoek eza-
gutza eman dutenez, Enrikek dituen sumarioak 1978-1983 gara-

koak dira guztiak. Beraz, 1981eko sumario horrek, orain Enrike atxilotzeko argudio moduan erabili dutena, aurrekoekin bat egin beharko lukeela diote.

'AURREKARIK GABEKO ESPETXERATZEA'

Enrike Letonaren senitartekoek prentsaurrekoa eman zuten Enrikeri gertatutakoa azaltzeko. Euren esanetan, hainbat zuzenbide aditurekin egin dute berba, eta orain arte Espainiako Estatu-
tuan ez da inoiz halakorik gertatu. Berriro espetxeratu zuten asmoarekin askatu zutela uste dute, eta zentzugabea deritzote gehieneko zigorra bete duen pertsona bat 1978-1983 sumarioaren garai bereko egozte bategatik berriro espetxeratzea.

Senideek gaineratu zuten Enrikerekin egiten ari direna esperientzia dirudiela, eta aurrerantzean beste preso batzuei neurri berberak aplikatuko ote dieten beldur dira.



Enrike Letonaren senitartekoek prentsaurrekoa egin zuten haren berri emateko.



1981. urtea ezkerro San Frantzisko Xabier Ikastolak erabili izan ditu Santa Teresako oktogonoak.

SERGIO AZKARATE

HIRIGINTZA/ Abuztuan herriko eraikin esanguratsu bi bota dituzte

Kasinoa eta Santa Teresako oktogonoak eraitsi dituzte

U.M.

Oporretatik bueltan herrian igarri ditugun aldaketen artean, nabarmentzekoak dira Arrasateko bi eraikin esanguratsu eraitsi dituztela aurtengo udan: Erdiko kaleko Kasino elkarte eta Santa Teresako oktogonoak. Bi eraikinak ordenazioz kanpo zeuden.

Abuztuko aurreneko hamabostaldian bota dituzte bai Kasino elkarte gastronomikoa baita Santa Teresako oktogonoak ere. Excavaciones Besaide enpresa ibili da lan horiek egiten. Eta oraindik ere hantxe dabilta, egokitzapen lanak egiten.

Kontua da Arrasateko Planeamenduaren Egitamu Orokorren eraginez, Kasino elkarte eta Santa Teresako oktogonoak, biak hala biak, ordenazioz kanpo geratu direla, eta horrexegatik bota behar izan dituztela.

KASINO ELKARTEA

Hala, orain Erdiko kalera joanez gero, Kasinoa zegoen lekutik Ferrerías kalea ikusten da. Hain justu, aurrera begira, bi kaleen arteko lotura egitea da Udalaren asmoa; pasabidea egokituko dute horretarako. Horrez gainera, esparru publikoren bat sortuko dute Kasinoak utzitako zuloan (plazaren bat edo antzerako zerbait). Edozelan ere, etorkizunean gauzak hala geratuko diren edo beste zerbait egingo duten ez dute erabaki Udalean.

Horren harira, Kasino elkar-teari dagokionez, eraikin zaharra

bota arren, elkarteak aurrera egingo du. Hain zuzen ere, Iturriotz kalean gura dute zabaldu elkartearen egoitza berria.

SANTA TERESAKO OKTOGONOAK

Bestalde, urte luzez (1981. urtea ezkerro, hain zuzen) San Frantzisko Xabier Ikastolak Santa Teresako oktogonoak erabili eta gero, haiek ere bota egin dituzte opor sasoiaren. Lehen aipatutako moduan, orain, inguru hura egokitzen dabilta. Eta, aurrera begira, hutsik geratu den orubean zer egingo duten oraindik ez dute guztiz erabaki Udalean. Edozelan ere, litekeena da etorkizunean oinezkoendako guneren bat edo aparkalekuren bat egitea.



Kasinoak utzitako hutsunean esparru publikoa eraiki gura du Udalak.

LIBANE MADERA

Tellerria baserriko labea babesteko eskatu du Aranzadik

U.M.

Tellerria baserriko labearen garrantziaren berri eman dio Aranzadi Zientzia elkarteak Arrasateko Udalari. Labe hori botatzeko asmoa zegoela-eta, Aranzadiren helburua da labearendako babesla lortzea.

Uribarrin dago Tellerriako labea. Duela bi urte baino gehiago bota zuten Tellerria baserria, industrialdea eraiki behar zuten-eta. Baina bota zutenean ezusteko handia hartu zuten, barruan labe bat agertu zelako; teilak, adreiluak eta zeramikazko bestelako elementuak egiteko antzinako labea. Hala, iaztik, Aranzadi Zientzia elkarte labea aztertzen dabil, eta jasotako emaitzekin txostena aurkeztu dio Udalari aurtengo udan. Aranzadiko Arkeologia Saileko kide Alfredo Morazak Arrasate Irratiari kontatutakoaren arabera, labeak duen garrantzia ikusita babestu egin beharko litzateke.

Eta hala adierazi diote Udalari, Diputazioari eta Debagoieneko Industrialdeko arduradunei. Labea Uribarrin egin gura duten industrialdean integratzea eskatzen dute; aurreratu digunez, oraingoz aurrera doa eskaera hori.

ANTZIN-ANTZINAKOA

Historia luzea dauka Tellerriako labeak. Alfredo Morazaren esanetan, labearen gaineko aurreneko erreferentziak XVIII. mende-koak dira; hala ere, XVI. mendean ere bada Uribarrin labe baten aipamenik. Hortaz, uste baino zaharragoa izan daiteke. Mota horretako labeek XIX. mendean bukaerara arte segitu zuten lanean, eta aurreneko produkzio industrialarekin batera desagertu ziren.

Antzina herrikideek eguneko bizimoduan erabiltzen zutenaren adierazgarri da Tellerriako labea. Horrez gain, oso egoera onean dago gordeta, baserri barruan egon da-eta. Hala, badirudi gorde beharreko altxorra dela.



ARTXIBOA

Duela urte bi pasatxo bota zuten Tellerria baserria, han industrialdea egiteko.


LABUR

Alde zaharreko lanak bukatzeko azkeneko ukituak egitea falta zaizkie

Arrasateko alde zaharreko gune aldapsuenetako lurra aldatzen hasi ziren joan den maiatzean. Hain zuzen ere, orain arteko kareharrizko zorua kentzen ibili dira, euriarekin oso labainkor bihurtzen zen-eta. Orain, Udaletik jakinarazi digutenez, azkeneko ukituak besterik ez zaie falta, eskudelak, eta abarreako ipintzea, esate baterako. Kontuak kontu, dagoeneko zabalik daude kaleak, oztopo barik; eta lurra bustita dagoenean, orain lasai-lasai ibil daiteke alde zaharreko aldapetan gora eta behera, hankaz gora jausteko beldur barik.

San Josepe harrobiko ustiapena datorren urtean bukatu beharko dute

2004. urteko udaberrian utzi beharko diote San Josepen harrobi lana egiteari. Hori gertatzen denean, 92.164 metro koadro beste zerbaitarako erabiltzeko libre geratuko dira. Hala, aurreikuspenen arabera, hiru pabilioi eraikiko dituzte. Horrez gainera, gaur egun lanean diharduen hormigoia egiteko instalazioa bere horretan gordeko dute. Lau pabilioiek, guztira, 13.050 m²-ko lur okupazioa beteko dute; gainerakoa industriarako eta antzerako erabileretarako izango da. Horrez gainera, inguru hura guztia leheneratu egingo dute.



Dagoeneko ia bukatu dute 12 etxebizitzako eraikin bat, eta beste hiru bide onetik doaz.

HIRIGINTZA/ Legargaingo etxebizitzak

Legargainen 124 etxebizitza izango dira etorkizunean

UBANE MADERA

Bide onetik doaz IFAM lantegiaren atzealdean egiten dabilen etxebizitzak eraikitzeko lanak. Eraikitze lanekin batera, inguru hori guztiori urbanizatzen dabilta. Besteak beste, orain, lau etxe berri daude abiarazita. Hala, laster 48 etxebizitza berri izango dira guztira.

Joan den urteko urtarrilean onartu zuen Udalak U.16.1 izeneko gunerako proiektua; IFAM lantegia egon zen inguruko atzealdekoa, hain zuzen. Eta iazko maiatzean hasi zituzten lanak, U.16.1 guneko Konpentsazio batzordearen ardurapean. Proiektuaren helburua da guztira 84 etxebizitza berri eraikitzea 22.000 metro koadroko gunen hartan. Horrela, dena zortzi eraikin berri egingo dituzte.

721.000 euro inguruko aurrekontua dute lanok egiteko.

BATZUK BUKATZEAR

Dagoeneko etxebizitza horietako batzuk bukatzeaz daude. Hain zuzen ere, Santa Marinara igotzeko aldapatik gertu dagoen eraikina. Horrez gain, beste hiru eraikinetako lanak dezente aurreratu da.

Orain egiten dabilen etxe bakoitzak 12 etxebizitza izango ditu. Hortaz, laster 48 etxebizitza

berri izango dira Legargain inguruan, estreinatzeko moduan.

Egin gura dituzten gainerako lau eraikinei dagokienez, lanak egiten dabilen enpresak oraindik ez du zehaztu noiz hasiko diren eraikitzen. Edozelan ere, 12 etxebizitzako beste bi eraikin egitea da euren asmoa; eta sei etxebizitzako beste bi.

Oro har, proiektu osoa bukatzen dutenean, eta, U.16.1 izeneko inguruan lehenagotik dauden etxebizitzak kontuan hartuta, guztira 124 etxebizitza izango dira

han. Esandako moduan, ez dago lanok bukatzeko data zehatzik, baina Udaleko ordezkariak aditzera eman digutenez, bide onetik doaz.

KALE BERRIAK

Horrez gainera, etxebizitza berrien ondorioz, etxebizitzen artean kale berriak sortu dira. Goiko partean dagoen kaleari Legargain izena eman diote (izen bereko kalearen luzapena da-eta); erdiko partekoari Zuberoa kalea (oinezkoendako izango da); eta beheko partekoari Lapurdi kalea (ibilgailuendako izango da). Kaleen arteko loturak, berriz, eskailera bitartez egingo dituzte. Are gehiago, dagoeneko horietako eskailera batzuk eginda daude. Bestalde, IFAMeko etxebizitza berriekin bat egingo dute; eta hala, guztiendako parke berria izango dute: orain gutxi egin duten Legarre plaza.

AUZOEN ARTEKO LOTURA

U.16.1 guneko lanak bukatzen dituztenean, gunen berriak Muskola eta Santa Marina auzoen arteko zelanbaiteko lotura lanak egingo ditu; IFAMeko etxebizitzak tartean direla. Izan ere, bizi-tegigune bilakatuko da erabat. Are gehiago, kontuan hartuta Gernika Oinezkoen Zumardia justu inguru horren gainetik pasatzen dela.

Proiektuaren helburua da, guztira, 84 etxebizitza berri eraikitzea

Etxebizitza berrien ondorioz, etxebizitzen artean kale berriak ere sortu dira

Aldaiko 303 gorpuzki aterako dituzte abendutik aurrera

U.M.

Aldai hilerria husteko lanekin segitu gura du Udalak abenduan. Zerbitzu Saitetik aditzera eman digutenez, 1991n, 92an, 93an eta 94an hildakoen gorpuzkiak aterako dituzte abenduaren 1etik aurrera.

Arrasateko Udalak prentsa ohar baten jakinarazi digu abenduaren 1etik aurrera jarraituko dutela Aldai hilerrian geratzen diren gorpuzkiak ateratzen. Zerbitzu Saitetik esan digutenez, 91-94 urteen bitartean hilobiratutako gorpuzkiak falta zaizkie ateratzea; horrez gainera, edo, lan horiekin batera, hezurtegiak ere ateratzen dabilta.

Beraz, norbaitek senideren baten gorpuzkiak hilerri zaharretan izanez gero, posible da gorpuzki horiek berreskuratzea edo gorpuzkiekin zer egin erabakitzea. Hain justu, senideak dituztenei gutuna bidaliko die Udalak beharrezko argibide guztiekin.

Orain, guztira, 303 gorpuzki aterako dituzte.

OSO GUTXIK ESKATZEN DITUZTE

Edozelan ere, Zerbitzu Saitetik jakinarazi digutenez hilerrian hilobiratuta dauden senideen %20-%25ek bakarrik eskatzen


dituzte gorpuzkiak. Gainerako, en artean, gehienek gorpuzkiak erretzea edo hezurtegietan sartzea eskatzen dute. Eta, beste askok ez dituzte eskatu ere egingen. Azken horien kasuan, senideen gorpuzkiak San Kristobalgo hezurtegi orokorrean sartu ohi dituzte.

Duela urte bi hasi ziren Aldai hilerriko lehenengo gorpuzkiak ateratzen. Orduetik orain arte, 1990eko abenduaren 31ra arteko gorpuzkiak atera dituzte.

Bestalde, 1994. urtera arteko gorpuzkiak atera eta gero, panteoiak hustea faltako zaie. Dena dela, hori noiz egingo duten oraindik ez dute erabaki.

HILERRIA ORAINDIK ITXITA

Era berean, gogorarazi behar dago Aldaiko hilerria oraindik itxita dagoela. Hain justu ere, joan den uztailaren 16az geroztik dago itxita. Kontua da, guneko lurzorua hondoratu egin zitzaioela bisitari bati kanposantuan zebilela. Zulotik ateratzeko laguntza eta guzti behar izan zuen herritarrek. Hala, egoera haren aurrean, udal teknikariak erabaki zuten segurtasuna bermatzeko komenigarria zela itxia. Orain, jakinarazi digute Domu Santu egunera arte itxita segituko duela Aldai hilerriak.



Ume saharar bat gure artean geratuko da udazkenean

U.M.

Oraingo asteburuan itzuliko dira euren kanpalekuetara Saharatik etorritako umeak. Guztiak, bat izan ezik. Halihena Mohamed Arrasaten geratuko da udazkenean, garuneko lesioa du-eta.

Uztailaren hasieran etorri ziren ume sahararrak, Fronte Polisarioaren Oporrak Bakean programaren barruan. Guztira, zortzi neska-mutiko etorri ziren, Tindouf-eko, Aaiungo eta Asmarako kanpalekuetatik. 7 eta 11 urteko umeak dira, eta programaren helburua izan da ume horiek bizi duten eguneroko errealitate latzetik urruntzea.

Hala, Arrasateko familiarekin bizi izan dira azken bi hilabeteotan. Eta makina bat gauza ikusi eta egin ahal izan dituzte. Orain, euren familiengana itzultzeko ordua iritsi zaie; guztiei, Halihena Mohamedi izan ezik.

SENDATZEN LAGUNTZEKO

Gauza da 6 urteko Halihenari gaitzen bat aurkitu diotela garunean hemengo medikuek. Gaitzak begiak eta gorputz erdia baldintzatzen dizkio umeari. Eta, umearen familiaren eta hango gobernuaren baimenak eskatu eta gero, udazkenean Halihena Arrasaten geratzea lortu dute. Hala, tarte horretan bere gaixotasuna sendatzeko bidean jarriko dute saharar txikia.

ELKARTASUNA/ Hirukote bat Nikaraguan izan da opor sasoiari hangoei laguntzen

Nikaraguarako helburu nagusiak betetzea lortu dute Arrasateko joandako hirukoteak

U.M.

Udako oporretan, atsedean hartzeraz, jaietan ibiltzeraz edo turismo egitera joateaz gain, badira batzuk lanera joaten direnak. Horrelako hiru lagun Nikaraguan izan dira, Granadako eta Masaiako auzo banatan. Han zer egin duten kontatu digute bueltan.

Iñaki Agiriano medikua eta Inma Escribano eta Edurne Leibar erizainak izan dira Nikaraguan. Besteak beste, 30 kilo botikarekin joan dira hara, han kontsulta pasatzeko helburuarekin. Horrez gainera, eskolak emateko asmoa ere bazuten, nikaraguarrei anbulatorio edo osasun etxe bat egiten eta kudeatzen erakusteko. Botikez gainera, Arrasateko Udalak emandako 6.000 euroko laguntza ere eramanez dute.

HELBURUA BETETA

Besteak beste, emakumeekin lan egitea egokitu zaie, osasun promotoreak hezteko. Hasierako asmoa anbulatorioa abiaraztea zen; baina behin Nikaraguan egonda, ikusi zuten egokia zela baita osasun promotoreak heztearen ere. Hala, promotore haiei Nikaraguan dituen arazo nagusien berri eman dizkiete, eta arazook konpontzeko zer egin erakutsi: zaborrak zelantratatu, komunek zelakoak izan behar duten, gaixotasun transmisioak zelant prebenitu, transmisio sexuala gaixotasunak, haurren nutrizioa... Arrasateko joandako hirukoteak kontatu digutenez, ezjakintasuna da Nikaraguako arazo larriena; eta gainerako arazo gehienak ezjakintasun horren ondorio dira.

Bestalde, Udalak emandako dirulaguntzarekin eta eramandako botikekin bi osasun etxe abia-



Besteak beste, bi osasun etxe abiarazi dituzte Nikaraguako hegoaldean; helburua da urtebetez abian izatea.

IÑAKI AGIRIANO

razteko aurreneko pausoak eman dituzte. Iñaki Agirianoaren esanetan, euren asmoa zen osasun etxe haientarako urtebeterako beharrezko profesionalak kontratatzea, eta gunea botikekin hornitzea. Hori ere egin dute. Eta urtebetea modu egokian betez gero, datorren urtean egindakoa sendotzeko asmoa du hirukoteak.

ANTROPOMETRIA IKERKETA

Horrez guztiaz gainera, 4 eta 10 urte arteko umeen egoera zein den aztertu dute. Hala, eskuratutako datuak hona ekarri eta hemen

aztertuko dituzte, gero, haien beharrei eta arazoei aurre egiten laguntzeko. Batez ere desnutrizio arazoak dituzte.

Ia 1.000 neska-mutiko pisatu, neurtu eta aztertu dituzte.

BUROKAZIA ARAZOAK

Baina esan beharra dago arazoak ere izan dituztela. Burokraziarekin. Hango Osasun Ministerioari euren asmoen berri ematean egundoko burokrazia arazoekin egin dute topo. Ministro-ordearekin eta guzti egon behar izan dute. Esan diguten moduan, ez zuten uste

halako proiektu txiki batekin horrenbesteko burokrazia kontu sortuko zirenik.

Kontuak kontu, beste urtebetez (laugarrena da) hemengo medikuen eta erizainen bisita jaso dute nikaraguarrek. Eta, denbora laburrez bada ere, gabeziak zelant bait ahaztu eta osasunaren arloan hemengo profesionalen laguntza garrantzitsua jaso dute. Orain, gure hiru lagunak hemen Nikaraguaren berri ematen jardungo dute eta, bide batez, nikaraguarrendako laguntza gehiago batzen.



Uribarri-Erguin, laster jaietan

Hilaren 12an, 13an eta 14an Uribarri-Erguingo jaiak dira. Egubakoitzean, 19:00etan hasiko dira, trikitilariarekin. Gero, auzoko hildakoen aldeko meza esango dute, eta erretiratuei afaria eta opariak emango dizkiete. Gauean erromeria izango da. Zapatuan, 10:00etatik 14:00etara umeendako jolasak izango dira, Usaetxen; eta gauean, erromeria. Eta domekan, Arima Zubin herri kirolak eta bertsolariak izango dira, goizean. Arratsaldean, Gorritiren animaliak. Eta bukatzeko, erromeria.

LABUR

KZGunean ikastaro ugari antolatu dituzte irailerako

Dirudienez, abuztuko oporren ostean jende asko zegoen Uarkapeko ordenagailuen gunea noiz zabalduko zain. Eta, KZGuneak ez dira gora begira ibili. Hala, irailerako makina bat ikastaro antolatu dituzte. Hori bai, gehienak oinarrikoak, ordenagailua eskuartean lehenengo aldiz hartuko dutenei begira prestatutakoak. Horren ostean, Interneten erabiltzen ere erakusten diete.

Horrez gainera, beste ikastaro berezi bat ere antolatu dute irailerako: dendariei zuzendutakoa; euren eguneroko lanean laguntzeko. Ikastaro horren ondorioz, KZGunearen ohiko ordutegia zabaldu egin behar izan dute; hala, orain, 14:00etatik 16:00etara jarduten dute.

Edozelan ere, gogorazai behar da gainerako erabiltzaileendako ordutegia 09:00etatik 13:00ak artekoa eta 16:00etatik 20:00ak artekoa dela.

Gelma pareko paretarekin bueltaka

Badirudi berrirori atzeratu direla Gelma pareko paretarekin bueltatzeko lanak. Izan ere, berez abuztuan bukatzekotan ziren arren, oporretatik bueltan oraindik ere lanean dabiltzala ikusi dugu. Hori bai, dagoeneko kendu dute autoen joan-etorria motelitzen zuten semaforoa. Kontuak kontu, orain esan digute konponketa lan horiek bukatzea inguruko urbanizazio lanen menpe dagoela.

Segurtasun kontuak direla-eta bota dute Gelma pareko paretarekin, eta atzerago dabilta berria eraikitzen.

Odol ateratzeak izango dira datorren astean

Datorren martitzenean eta eguaztenean (hilak 9 eta 10), odol ateratzeak egingo dituzte Arrasateko anbulatorioan, ohiko ordutegian.

Esan beharra dago, aurtun, aurreratu egin dituztela ohiko odol ateratzeak, abuztuan, istripu asko izan direla. Hala, abuztuaren 25ean eta 26an eta irailaren 2an eta 3an jardun dute odola ateratzen, eta herritarrei egindako deialdiari esker, erantzun ona lortu dute. Emandako datuen arabera, 200 bat lagunek eman dute odola. Edozelan ere, oraindik gehiago behar da.



ABUZTUAREN AMAIERAN BIZPAHIRU AHATE HIL ZITUZTEN

Abuztuko azken astean bizpahiru ahate hilda azaldu ziren Santa Barbaran. Ahateak goizaldean akabatu zituzten, eta dirudienez parrandatik bueltan zetozen astakilo batzuen kontua izan zen. Hala, ahateak zeuden tokira joan eta, besterik egin ezean, bizpahiru ahate hil zituzten. Norberak egin dezala nahi duena, baina bere buruarekin, besteei minik egin gabe.

MOTXILA BIZKARREAN ETA... LABORDETAREKIN ELKARTU!

Ander Etxebarria mondragoetarra Pirinioetan egon da oporretan. Eta Panticosako aterpean TVE kateko *Un país en la mochila* saioko aurkezle Jose Antonio Labordetarekin elkartu zen. Lasai asko ibili ziren berbetan. Itxuraz, Labordeta Arrasaten izandakoa da, Leopoldo Maria Panero elkarriketatzen; Bernardo Atxagak lagundu zion elkarriketa egiten. Jakin dezazuen, argazkiko motxila Anderrena da.



URIBARRIKO JAIK OSPATU DIREN PLAZATXOAREN AZKENA?

Garaia proiektua dela-eta Uribarriko jaiak ospatu diren plazatxoari ez zaio askorik geratzen. Plaza hura aparkaleku moduan erabiltzen dute, eta Uribarriko jaietako ekintza asko han egin dituzte. Joan den urtean ere azken urtea izango zela uste zuten, eta aurtengo jaiak bertan ospatu dituzte; beraz, batek daki datorren urtean oraindik plazatxoak hantxe jarraituko duen.



GAZTETXOEI ERE AMAITU ZAIZKIE OPORRAK: DENOK ESKOLARA!

Eskolara joateko oraindik egun batzuk falta dira, baina umezaintzan dagoeneko hasi dira lanean. Izan ere, umeei amaitu zaizkie oporrak, eta euren anaia nagusiek ere berehala hasiko dituzte eskolak. Horiek bai, horiek aspaldi konturatu ziren oporretan eskolan baino hobeto daudela, eta bi hilabete oporretan eman eta gero, seguru gogorra egingo zaiela eskolara bueltatzea. Beste aldean gurasoak daude, eskolak has daitezen irrikan daudenak!

URIBARRIKO JAIETAN, PILOTA, BERTSOLARIAK, HERRI BAZKARIA, BOLO TXAPELKETA...

Abuztuaren 22an hasi ziren Uribarriko jaiak, eta abuztuaren 24an amaitu. Hiru egunotan Uribarrira hurbildutakoek ondo pasatzeko aukera paregabea izan zuten. Udalan egin zuten herri bazkarian 50 lagun elkartu ziren, eta, ederto bazkaltzeaz gain, hainbat opari zozketatu zituzten. Kirolaz gozatzeko aukera ere izan zen, pilota partiduak eta Bolo Txapelketa izan ziren-eta. Eskuz banakako partiduan, Jose Mari Iturbe eta Jose Luis Olabarria izan ziren aurrez aurre, eta Iturbe nagusitu zen (22-17). Eskuz binakako partidua ere ezin ikusgarriagoa izan zen, ordainduta ere ikusten ez den horietakoa. Iturbe anaiek Jose Ramon Kajigas eta Oskar Arestimuño izan zituzten kontrario. 20na zihozazela, partidua 25era luzatzea erabaki zuten, eta Kajigas eta Arestimuño nagusitu ziren (25-23). Bolo Txapelketa ere punta-puntakoa izan zen: Bizkaiko jokalaria etorri ziren, baina *Gautxori* izan zen irabazlea. Horrez gain, umeendako jolasak, Mus Txapelketa (behingoz Uribarrikoek irabazi zuten), eta bertsolariak izan ziren. Jai giro aparta izan zen.



FUTBOLA

Denboraldiaurrean, ibarreko taldeetatik Mondrak erakutsi du maila onena

Josu Zubiaren mutilek Bergara Hiria Txapelketa irabazi zuten zapatuan, eta domekan, Arrasate Hiria Futbol Txapelketa ere Mondragoen geratu zen

XABIER URZELAI

Preferente mailako Liga Txapelketa oraingo asteburuan hasiko da, eta, denboraldiaurrean ikusitakoaren arabera, Mondra da ibarreko taldeen artean sasoi hoberenean iritsiko den taldea. Arrasateko eta Bergarako futbol txapelketak irabazita erakutsi du hori.

Mondra erregional mailatik igotzen den taldea da, baina preferente mailan ondo baino hobeto jokatzeko taldea dauka. Denboraldiaurre polita egin dute Josu Zubiaren mutilek. Abuztuaren 18an hasi ziren entrenatzen, eta entrenamendua ez da alferrikakoa izan, hasi da eta fruitua ematen.

ASTEBURU BATEAN BI TXAPELKETA

Joan den asteburuan Mondrako jarraitzaileek nahi beste futbol izan zuten. Zapatuan Mondrak eta Aloña Mendik jokatu zuten Bergara Hiriko finala, eta arrasatearrak 3-0 gailendu ziren. Uste baino errazago irabazi zuten Mondrak, Ekainean, Muruaren eta Iker Lopezen golei esker. Partidua ikustera animatu ziren mondragoetarrak pozik atera ziren Agorrosin futbol zelaitik, 6 euro ordaindu eta gero taldeak gutxienez irabazi egin zuten-eta. Liga Txapelketan bergarrek puntapuntako futbola erakutsi behariko dute, futbol zelaira sartzea ez da-eta txantxetako kontua.

Domekan, berriz, Arrasate Hiria Futbol Txapelketa jokatu zuten Mondrak, UDAk eta Aloña Mendik. Atxabalpera sartzea merkexeagoa izan zen -5 euro-, eta gainera hiru zeingehiagokaz gozatzeko aukera egon zen. Txapelketa parekatua izan zen. Lehenengo 40 minutuak UDAk eta Aloña Men-



XABIER URZELAI

Aloña Mendik azken minutuetan Mondragoeko taldea estutzea lortu zuen, baina Mondra nagusitu zen (2-1).

Asteburu berean Mondrak bi txapelketa eskuratu ditu, Bergarakoa eta Arrasatekoa

dik jokatu zituzten. Norgehiagoka parekatua izan zen, eta partiduko gol bakarra Aloña Mendiko atzelari batek egin zuen, areaz kanpotik egindako jaurtiketa

Mondrak 2-1 irabazi zion Aloña Mendiri eta 0-0 egin zuten UDAREN kontra

ikusgarri baten. Hirunako Txapelketetan ohikoa denez, berdinketak ekiditeko penalti jaurtiketak izan ziren, eta lehen lehian, Aloña Mendik UDAk baino tre-

Asteburuan hasiko da denboraldia, eta Hernani izango da Mondraren lehen kontrarioa

betasun handiagoko erakutsi zuen. Ondorengo norgehiagokan Mondrak eta Aloña Mendik neurtu zituzten indarrak. Zapatuan Mondra erraz gailendu zen, bai-

na domekan indarrak parekatuago egon ziren. Mondra aurreratu zen, Jon Muruak egindako golari esker, eta 2-0koa Muruak berak egin zuen. Partidua amaitzeko minutu gutxi geratzen zirela, berriz, oñatiarrek 1-2koa egin zuten eta norgehiagoka berdindu ez zuten arrèn, etxeko taldea estutzea lortu zuten.

Azken partidua Mondrak eta UDAk jokatu zuten. Aretxabaleko entrenatzaileak, Igor Gordobilek, Aloña Mendiren kontrako partiduan baino talde beterranoagoa zelairatu zuen, eta Josu Zubiak ere aldaketa asko egin zituen. Jokalari guztiek izan zuten jokatzeko aukera, baita gazte mailatik igotzen diren jokalariek ere. Partidua hasi eta berehala euria hasi zuen, eta ordurako futbol zelaia egoera txarrean bazegoen, euri zaparradak ez zuten batere lagundu. Mondrak nahikoa zuen partidua berdintzearekin, eta UDAko jokalariek batzuek dagoeneko sasoi betean daudela erakutsi bazuten ere, ez ziren golik egiteko gauza izan. Partidua 0-0 amaitu zen, eta Mondrak denboraldiaurreko bigarren txapelketa eskuratu zuen.

ASTEBURUAN LIGA TXAPELKETA

Oraingo asteburuan hasiko da preferente mailako 2003-04 denboraldia, eta Mondrak kontrario gogorra izango du: Hernani.

Joan den denboraldian ez zen Liga Txapelketako talde gogorrenetakoa izan, baina hernaniarrek ez zuten inongo estuasunik pasatu. Taularen erdialdean amaitu zuten Liga Txapelketa, eta hiru garren mailara igotzea da euren helburua, handik datoz-eta. Lehenengo derbia, berriz, azaroaren 9an izango da, Aretxabalearen kontra. Aurten arrazoi asko dago Atxabalpera joateko.

Aspaldian izan den talde orekatuena

Horixe dauka ona Mondrak, postu bakoitzerako gutxienez bi jokalaririk dituela, eta aurtengo Liga Txapelketa luzean eskertzekoa da hori. Denboraldiaurreko partiduetan Mondrako entrenatzaileak aldaketak egin dituen bakoitzean taldeak ez du behera egin, eta horrek uste dugun baino balio handiagoa du.

Joan den urtean talde sendoa zuen Mondrak, eta aurten ere eutsi egin diote iazko multzoari. Ruben Ruedak taldean jarraituko du, nahiz eta futbola uzteko asmoa zuen. Iker Lazpiur ere Arrasaten geratuko da, eta Jon Muruak ere -joan den denboraldiko erregional mailako pitxitxia- Atxabalpen jokatu du. Horiez gain, gainerako jokalariek ere taldean jarraituko dute, eta gazte mailatik igotako eta kanpotik etorritako jokalariek sendo-

tu egingo dute Mondra. Gazte mailatik Markel Gonzalez, Mikel Gangoiti eta Jon Loiti igotzen dira. Kanpotik, berriz, hainbat jokalaririk etorri dira: Andres Castillejok eta Aitor Pildainek badakite Mondran jokatzea zer den. Lehenak Eibarren eman du azken urtea eta Pildain UDAtik etorri da. Horiez gain, bi fitxaketa egin ditu Mondrak: Eibarren jokatzen zebilen Mikel Calvo atezaina eta Soraluze taldeko Inaxio Larrañaga aurrelaria, biak hala soraluze-tarrak. Taldea ikusita gauza bat dago argi: aurten titular izan gura duenak gogotik izerditu behar du.

Tamalez, Atxabalpeko zelaia albiste da berriro. Udan ez dute ureztatzeko urrik izan, eta zelaia penagarri dago. Ea 15 egun barru hobeto dagoen, taldeak ondo jokatzeko futbola zelaiak ondo egon behar du-eta.



XABIER URZELAI

Iker Lazpiurrek jaso zuen Arrasate Hiria Txapelketako kopa.

AUKEAREN 2003-2004 IKASTURTEKO KIROL ESKAINTZA

AUKEA elkarteak kirol eskaintza zabala prestatu du aurtengo ikasturterako

Kirol eskaintza bakoitzak gehienezko eta gutxienezko plazak izango ditu; horrenbestez, izenematea berehala egitea komeni da

XABIER URZELAI

Kirola zure esku lelopean, AUKEA kirol elkarteak dagoneko gertu du aurtengo ikasturterako kirol eskaintza. Oporrak atzean utzita, kirola egiteko asmoz etorri diren mondragoetarrek izango dute non aukeratu.

Horretarako balio dute oporrek, deskantsatzeko eta datorren ikasturterako asmo berriekin etortzeko. Asmo horietako bat kirola egiten hastea edo aurreko urteetan egindakoarekin jarraitzea bada, AUKEA kirol elkarteak asmo horiek asetzeko moduko kirol eskaintza antolatu du.

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Dagoeneko zabalik dago AUKEA elkarteak gertatutako kirol eskaintzan izena emateko epea. Astelehena izan zen izena emateko lehenengo eguna, eta, horrenbestez, interesatuta egonez gero hobe duzue azkar ibili, kirol eskaintza plaza mugatuak dituzte-eta. Aurtun, berritasun gisa, *spinning*-a eta *aguagym*-a eskainiko dituzte. Tonifikazioa, *fitness*-a, sasoiaren egoteko gimnasia, aerobika, igeriketa egokitua, gutxitu psikikoendako gimnasia, hirugarren adinekoendako gimnasia, eta beste kirol


aukera batzuk ere izango dira.

Kirol mota bakoitza egiteko kirolzaleek ordutegi zabala izango dute aukeran. Horrez gainera, erabiltzaileek kirol eskaintza batzuk astean behin edo birritan egiteko aukera izango dute, eta prezioa ere horren araberakoa izango da.

KIROL EKINTZEN ARABERAKO PREZIOAK

Kirol eskaintza bakoitzak bere prezioa du. Hala, tonifikazioa eta hirugarren adinekoendako gimnasia dira ekonomikoak: AUKEAko bazkideek 10,05 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 12,55 euro. Kirol eskaintza garestienagatik, berriz, bazkideek 30 euro ordaindu beharko dituzte, eta bazkide ez direnek 36,90 euro. Diru kopuru hori ordainduta, baina, kirolariak astean aerobikeko hiru saio, tonifikazio saio bat eta *spinning* saio bat izango ditu. Horrez gainera, aerobikeko hiru saio izan beharrean bi saio egiteko aukera ere egongo da, 5 euro gutxiago ordainduta. Bestalde, muskulazio gela irailaren 1a ezker dago irekita, eta igeriketa ikastaroak hilaren 15ean hasiko dira.

Lehenago aipatutako kirol mota horiek adibide bat baino ez dira; izan ere, interesatuok Musakolako kiroldegian izango duzue kirol eskaintza bakoitzaren ordutegien eta prezioen gaineko informazio zabalagoa.



Muskulazio gela erabiltzeko, bazkideek 21,95 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek 27,95 euro.

XABIER URZELAI

Bihar arratsaldean errugbia egongo da ikusgai Garagartzako 'zelaian'

Futbol taldeez gain, gainerako kirol taldeak ere lanean hasi dira. Errugbi taldeko seniorrak abuztuaren 26an hasi ziren entrenatzen, eta kadete eta gazte mailako taldeek aste honetan egin dituzte lehenengo entrenamenduak. Bihar, 17:00etan denboraldiurreko lehenengo partidiaz gozatzeko aukera egongo da Garagartzako zelaian, zelanbait deitzen zuten. Oraindik udan gaude, eta zelaia egoera txarrean bada ere, neguan izango dira benetako komeriak.

Bihar, Arrasate Errugbi Taldea osatzen duten talde guztiak izango dira jokatzeko: kadete mailako taldea, gazte mailako taldea, seniorrak eta beteranoak.



XABIER URZELAI

Errugbia ezagutzen ez duenak bihar herriko taldeak ikusteko aukera izango du.

Errugbi Taldeko atea irekita dituzte. Kadete, gazte eta senior mailako taldeak martitzenetan eta eguenetan entrenatzen dira, Musakolako kiroldegian, 19:00etan. Esan bezala, kirol hori

ezagutu eta praktikatu nahi duenak taldeko atea zabal-zabalik ditu, eta entrenamendu batera joatea baino ez du. Kirola egiteaz gainera, lagun talde handi batekin egingo du topo.

Ingurumenaren gaineko V. Diapositiba Lehiaketa abian

Gipuzkoako Mendizale Federakundeak aurtun ere mendiaren eta ingurumenaren gaineko Diapositiba Lehiaketa antolatu du. Aurtengoa bosgarren edizioa izango da, eta helburua aurreko urteetako bera izango da: batetik, mendiek duten aberastasuna agerraraztea; eta, bestetik, mendiek jasaten dituzten ingurumen arazoak ohartaraztea.

Horrenbestez, lehiaketan bi arlo izango dira: *Mendia eta bere aberastasunak* eta *Mendietako ingurumen arazoak*. Arlo bakoitzeko lau diapositiba aurkeztu ahal izango dira, eta lehenago saririk jaso ez duten diapositibak izan beharko dute.

ARGAZKIAK EGITEKO AUKERA ZABALA

Antolatzaileek mendiaren eta naturaren bi arloak azpimarratu gura izan dituzte: alde ona eta alde txarra. Ingurumen arazoak gaineko argazkiek aukera zabalak eskaintzen dute. Antolatzaileen esanetan, mendien aberas-

tasunaren iraupena eta gozamenaren arriskuan jartzen dituzten arazoak bi eratakoak izan daitezke: mendizale esparrutik kanpokoak direnak (mendiak pistaz betetzea, urbanizazio edo hirigintza lanak, zentral eolikoak eraikitzea...) eta mendizaleek sortzen dituzten kalteak (mendian utzitako zaborra, faunari kalteak, axolagabe egiten diren suak...).

800 EURO SARITAN

Argazkiak irailaren 22a baino lehen aurkeztu beharko dira, eta antolatzaileek astebete izango dute irabazleak nortzuk izan diren erabakitzeko. Saritutako diapositibak Gipuzkoako Mendizale Federakundeak 2004. urteko egutegian azalduko dira. Horrez gainera, saritutako diapositiba bakoitzak 100 euroko diru-saria jasoko du.

Diapositibak Garibai kaleko 3. zenbakian dagoen Besaideko egoitzan aurkeztu beharko dira.

ELKARRIZKETA

SOLE N'KULU-BULAITE/MUSIKARIA

“Nire musika jo gura dut, nik sentitzen dudana transmititzeko”

IKER BARANDIARAN

Sole N'Kulu-Bulaite nafarra da, eta orain dela zortzi urte Arrasatera etorri zen bizi izatera. Solek musikarako sen handia dauka eta oso gaztetatik abestu eta gitarra jotzen du. Duela hilabete batzuk musika taldea sortu zuen.

Noiz hasi zinen musikan? Eta zer entzun zenuen lehenengo?

Nik uste dut musikazale jaio nintzela. Betidanik izugarri gustatu zait. Anaiarekin reggaea, Mike Oldfield eta horrelakoak entzuten nituen.

Noiz hasi zinen abesten?

Txikia nintzela, Lodosan elizako koruan abesten hasi nintzen. Sasoi hartan gitarra jotzen hasi nintzen, mojekin. Orduan hasi zen guztia; musika egiteko gaitasuna nuela ikusi nuen.

Gitarra jotzen zure kasa ikasi duzu?

Oinarrizko akordeak eta erritmoak ikasi nituen, eta handik aurrera beste musikari batzuekin elkartzeko hasi nintzen eta abestiak egiten hasi nintzen.

Gero talderen baten parte hartu zenuen?

Ez, batez ere kalean jotzen ibili naiz. Kalean dabilen jendearentzako musika jotzeak erakartzen nau. Musika jotzen duenak bere artea ematen du, eta entzuten duenak horren truke gura duena ematen du. Iruñean hasi nintzen, kalean.

Abesti propioak ala bertsiotxoak jo izan dituzu?

Ez dut gustuko beste musikari batzuen bertsiotxoak jotzea, inoiz bertsioren bat jo izan dudan arren. Nire musika jo gura dut, nik sentitzen dudana transmititu gura dut. Ez dakit transmititzen beste batek sentitzen duena. Entzun eta goza dezaket, baina ez transmititu.

Eta zelakoak dira bakarka jo izan dituzun abestiak?

Reggae alai eta bizi asko entzun ondoren, antzeko zerbait egitea erabaki nuen. Horrelakoak dira nire kantuak. Oraindik ez dut ezer grabatu, baina ez daukat presarik.

Inoiz musika talderen baten grabazioan parte hartu duzu, ezta?

Bai, *Napartheid* aldizkarikoek atera zuten EP baten, Huajalotes taldearekin mexikanada bat abestu nuen. Iruñean nengoela, horrenbeste musikarirekin, talde bat osatzeko gogoia piztu zitzaidan.

Noiz etorri zinen Arrasatera? Eta etorri zarenetik, kalean jotzen ibili zara?



IKER BARANDIARAN

“Gure kontzertuetan ikusleak asko aztoratzen dira; dantzari eta abesten ibiltzen dira”

Orain dela zortzi urte etorri nintzen. Familia osatu nuen Arrasaten. Batzuetan, haserretzen naizenean eta barruko senak agintzen didanean, kalera irteten naiz musika jotzera; Gasteizera edo beste lekuren batera.

Eta noiz erabaki zenuen N'Kulu-Bulaite Band taldea sortzea?

Musika jotzen ari ziren lagun batzuek animatu ninduten. Gazteluondoren egiten zuten perkusio ikastarora joateko gonbita egin zidaten, eta han Iker Gabilondo bergararra ezagutu nuen. Ike-

“Aldi berean gitarra jotzeak eta abesteak asko mugatzen nau ahotsa ateratzeko eta komunikatzeko”

rrek baxua jo gura zuen, eta handik denbora laburrera, perkusioa jotzen zuen beste bergarar bat, Ruben, ezagutu genuen. Bi pertsona horiek izan dira bultzatzaile nagusiak. Berehala jotzen hasi ginen, eta oso emaitza onak izan ditugu. Taldea hiru-rok osatzen dugu: Rubenek perkusioa jotzen du, Ikerrek baxua, eta nik abestu eta gitarra espainola jotzen dut. Gitarrista bat gurako nuke, nik lasaiago abes dezadan. Aldi berean gitarra jotzeko eta abesteak asko mugatzen nau ahotsa ateratzeko eta ikus-

“Gure musika oso latindarra eta saltseroa da; abestietan poztasuna transmititzen dugu”

leekin komunikatzeko.

Zein musika mota egiten duzue? Eta zein asmo duzue?

Kiko Venenoren antzeko abestiak egiten ditugu. Oso musika latindarra eta saltseroa da. Poztasuna transmititu gura dugu. Horrez gainera, etorkinen eta feminismoaren alde egiten dugu. Guk idatzitako zortzi bat kantu ditugu, eta gure kontzertuetan ikusleak asko aztoratzen dira. Gure kantuak abestu eta dantza egiteko oso aproposak dira. Laster Jai-Zale tabernan joko dugu. Ea joaten zareten!

KULTURAPILULAK

**Bihar, zapatua, Extremadura Eguna ospatuko dute**

Urtero moduan, Arrasateko Corazon de Encina kultura elkarteak Extremadura Eguna antolatuko du, eta, egun berezi horrek merezi duen moduan, egitarau mardula gertatu du. Extremadura Eguna astelehenean (hilak 8) den arren, ekitaldi gehienak bihar, zapatua, antolatuko dituzte.

Aurten ere extremadurarrak eta gura duten guztiek Landako urtegiara joko dute. Hala, bihar, 10:30ean hasita eta egun osoan, jaki goxoak dastatzeko aukera egongo da han. Ezagun da extremadurarrak duten gastronomia goxo eta aberatsa. Besteak beste, sardinak, ardoa, meloia, gazta, tortillak eta gazpatxoak izango dituzte. Hala ere, guztia ez da gastronomia izango, eta jateko eta edateko egongo den guztia erretzeko asmotan, hainbat txapelketa eta joko antolatuko dituzte, hala nola: karta-jokoa, futbola, txapelketa, herri krosak, zaku lasterketa, gymkhana, eta abar. Hala ere, gazteek eta helduek ez dituzte txapelketa berberak jokatu, eta txapelketak bereiztuta egongo dira, adin berekoekin hobeto pasa dezaten.

ASTELEHENA AHAZTU BARIK

Ohikoa da halako jai handiak aste bukaeretan egitea, baina erosoagoa ere. Dena dela, Arrasateko extremadurarrak ez dute ahaztu gura berez eguna datorren astelehena, hilak 8, dela. Horren harira, egun handian elkarteak San Andresen duen egoitzan ardoarekin ohorezko topa egingo dute. 19:30etan izango da, Corazon de Encina elkartearen.

Gaizka Menak marrazki erakusketa jarriko du Oñatin

Gaizka Mena artista arrasatearrak marrazkien erakusketa jarriko du Oñatin. Irailaren 12tik 20ra bitartean, 28 bat marrazki ipiniko ditu gaitelkuan. Gaizkak marrazkiak tinta beltzez egiten ditu eta joan den urtean Arrasateko gaztetxean erakusketa bere ipini zuen. Erakusketa 17:30etik 20:30ak arte zabaliko egongo da –astelehenak ezik.

E, TXO!

GUREGAIK/ TELEBISTA IKUSTEKO OHITURA

UDALEKUETAN GALDUTAKO GAUZAK, TXATXILIPURDIN

Txatxilipurdi elkarteak aditzera eman du umeek eta gazteek uztaileko udalekuetan -bai Arrasaten, Beintzan, Bidarrain eta Orion- galdutako material guztia (arropak eta bestelako gauza batzuk) batu dutela eta Txatxilipurdiko bulegoan dutela. Hortaz, inork udalekuetan zerbaite galdu bazuen, jo dezala Pablo Urangako egoitzara. Baliteke galdu duen hori han aurkitzea!

JOSTAILUEN ETA MOZORROEN BILKETA

Txatxilipurdik honako deialdia egin du: herriko gurasoek etxean erabiltzen edo behar ez dituzten umeen jostailuak, mozo-rruak edo bestelakoak badituzte, jo dezatela Okendoko edo Santa Marinako ludoteketara. Gurasoek eramandakoak gustura hartuko dituzte ludoteketako begiraleek.

LUDOTEKEN ETA GAZTE TXOKOEN ORDUTEGIA

Txatxilipurdik kudeatzen dituen lutotekak -Okendokoa eta Santa Marina- irailaren 15ean zabalduko dituzte, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Han apuntatu gura duenak jo dezala bertara.

Bestalde, herriko hiru gazte txokoak -San Andreskoa, Musakolakoa eta Erguingoa- irailaren 17an zabalduko dituzte, 17:00etatik 20:00etara bitartean.

IKERKETA-PROIEKTUAK EGITEKO BEKAK

Doktorego aurreko ikerketa-proiektuak egiteko bekak emango ditu Eusko Jaurlaritzak. Interesa dutenek irailaren 20a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaerak. Informazio zabalagoa www.hezkuntza.ej-gv.net webgunean.

Gazteek telebistako saioak ikusteko ohitura handia dute

IKER BARANDIARAN

Adituen esanetan, gazteek aisialdi denborako zati handi bat telebista ikusten pasatzen dute. Gazteak protagonista diren saio arinak eta telesailak dira gazteek gehien ikusten dituzten programak.

Hainbat adituk aditzera eman dutenez, ordenagailuen eta PlayStation-en garaian bizi garen arren, gazteek aisialdi denborako zati handiena telebista ikusten egiten dute.

Euskal Herriko gazteek lagunekin kalean hainbat ordu egiten dituzten arren, astegunetan, batez ere, hiruzpalau ordu egiten dituzte telebista ikusten.


Ohiko telebista kateez gain,

Gazteak protagonista diren saio arinak eta telesailak dituzte gustuko

Arrasateko hainbat etxebizitzatan antena parabolikoari esker atzerriko hainbat kate ikus daitezke. Horiez gain, beste batzuek kate digitalak ere badituzte.

ILUNTZEAN ETA GAUEAN

Gazte batzuek telebista arratsaldean pizten duten arren, gehie-



Telebistek protagonismo handia dute etxebizitza askotan.

nek iluntzean eta gauean ikusten dute. Gazteak protagonista diren saio arinak dituzte gustuko, bai-

ta telebista kate gehienek eskaintzen dituzten telesailak ere. Salbuespenak ere egon badaude.

LOTSABARIK/ Mirian Domingos

“Munduaren egoerak lotsatzen nau”

IKER BARANDIARAN

Mirian Domingosek Psikopedagogia ikasketak bukatu berri ditu eta une honetan lan bila dabil. Lana eskuratu artean eta guri mesede egitearren, **Lotsabarik**-eko galderak erantzun zizkigun.

• **Txikitari zer izan gura zenuen?**

Ez neukan amets berezirik. Txikitatik futboleko jokatu dut, eskolan eta Mondra taldean, eta sasoi hartan neure burua etorkizunean futbolaritzat ikusten nuen. Gerora, baina, futbola utzi egin nuen, beraz...

• **Zelan ikusten duzu zeure**

burua hemendik 20 urtera?

Seme-alabekin eta bikotekidearekin. Berdin dit non bizi, baldin eta lan egokia aurkitzen badut. Heziketa arloan lanean ibili gura nuke.

• **Zein da, zeure iritziz, adin ideala?**

Ez daukat adin ideialik. Adin bakoitzak alde onak eta txarrak ditu.

• **Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?**

Ni neu neure buruarekin gustura egoteari eta egin gura dudana egiteari.

• **Zerk arduratzen zaitu gehien?**

Etorkizunak: lana aurkitzeak, etxebizitza eskuratzeak...

• **Zerk ematen dizu lotsa?**

Munduaren egoerak lotsatzen nau. Guztiok daukagu horren erantzukizuna, batzuek gehiago eta beste batzuek gutxiago.

• **Zure alde onen bat? Eta alde txarren bat?**


Entzule ona naiz eta pazientzia handia daukat, baina jendearekin hartu-emana izatea kostatu egiten zait. Baina behin harremana egin eta gero...

• **Zure gorputzeko atal gustukoena?**

Begiak, handiak direlako eta kolore indartsua dutelako.

• **Jendeari, zeri botatzen diozu begirada lehenengo?**

Batez ere, begiei, eskuei eta irribarreari.



ADINA: 23 urte • IKASKETAK: Heziketa Berezia eta Psikopedagogia • ZALETASUNAK: Irakurtzea eta musika
LIBURU BAT: 'Canción de amor para nosotras' • FILM BAT: 'El hijo de la novia' • MUSIKA TALDEA: Silvio Rodriguez • KIROL TALDEA: Reala

HIES BERRI
Tel.: 943 79 26 99

KONTRATAK IRYROK S.L. ERAIKUNTZAK
Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE

OSORIK PUB
Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

BEHEKODENDATIK

Bakarne Otxoa

AGRICENTRO OTXOA DENDAKUE

XABIER URZELAI

Bakarnek 20 urte daroie Agricentro Otxoa denda lanien. Dendie aittek zabaldu euen, merkatu plaza gainien, baiñe lokala txiki geratu zan, eta oin dala 10 urte Zigorrolara juen zien, industrial-dera. Gustora erantzun dutze Bakarnek gure galderei, eta proposamen bat edo beste egitten be animau da.

Txikittan ze gure zeuen izen?

Txikittan? Ezer be ez.

Drogak legalizauko zeuke?

Ez.

Eta prostituziñue?

Hori bai.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?

Ez dot pelikularik ikusten / Historiako liburuak gustetan jat / Danetik entzuten dot.

Nora juengo zitzake gustora?

Oin? Edozein lekutara.

Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?

Ez nitzake uharte batera juengo, baiñe juetekotan, jentie eruengo neuke.

Etxeko lan gorrotagarriena?

Sukaldeko lanak.

Juergazalie zara? Juergarako leku bat?

Ez naz oso juergazalie. Gu Bizkaixa aldera jueten gitzen.

Bizio bat?

Ez dauket bizio haundirik.

Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat?

Umore ona eukittie eta jentiekintan tratuen egitten jakittie.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Ez neuke holakorik egingo.

Zergaittik egingo zeuke lanuztie gustora?

Lanordu kopurue txikiketako.

Denpora librien ze egitten dozu?

Mendire juen.

Pertsona baten, zertan fije-tan zara lehenengo?

Izakeran.

Janari eta edari gustokuenak?



X.U.

“Egin dauen beruek kalte haundixe egin dutzo baserrixari, eta oin ez dau atzera bueltarik”

Danetik jaten dot; edateko, barriz, ure edo zerbezie.

Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?

Euskal Herrixen pakien bizi garela.

Oporretatik bueltie gogorra izen da?

Ez dogu oporrik euki; hortan,...

Eta, asmo barririk badauketue?

Ahal dala gehixago saldu.

Basarritarrekin hartu-emun haundixe dauketue; aurtengo beruek kalte haundixek egin dittu?

Bai, baserrixen bai. Ganauendako ez dau bedarrik, zelaixetan ez, behintzat, eta pentsue emun

“Beruek diela-eta pentsu gehixago salduko dogu, baiñe beste gauza batzuk gutxiago”

biher. Horretaz aparte, aurtien leka eta baba gutxi egongo da.

Hortan, pentsu gehixago salduko dozue.

Bai, pentsu gehixago salduko dogu, baiñe beste gauza batzuk gutxiago salduko dittugu.

Oin euri asko egittie be ez da, ba, ona izengo.

Ez. Eurixe egin biher dau, baiñe poliki-poliki. Dana dala, bedarra aspaldi dau erreta, eta hor ez dau atzera bueltarik.


Etxeko animalixendako produktuek be saltzen dittuzue. Etxie leku aproposa da animalixek eukitteko?

Neure ustez ez, baiñe hor norberak ikusiko dau.

NIREBIDAIAHURA/ Jon Ajuria

Norvegiara / 2002ko abuztutik 2003ko ekainera arte


Uztaileko azken zenbakian Norwegian geratu ginen, Jon Ajuriarekin. Erasmus bekari esker Kimika ikasketak amaitzeko asmoz joan zen Jon Norvegiako Bergen herrira. Zenbaki hartan, lagun batzuekin batera Bergendik Handargerko fiordoetaraino egin zuen bidaiaz idatzi genuen. Bidaia hura Norvegiara iritsi eta berehala egin zuen, eta hilabete asko geratzen ziren oraindik. Negua iritsi artean arratsaldeetan mendira joaten zen Jon, baita asteburuetan ere. Mendira joateko, baina, argitasuna behar, eta egunek aurrera egiten zuten neurrian eguzkia gero eta lehenago gordetzen zen: “Eguna ilunpean igarotzea ez da oso eroso. Gabon aurreko asteak lasai eman nituen: laborategian lan egin, irakurri, eskiatu...”.



“Hasieran, gogorra egiten da egun osoa ilunpean ematea”

Abendu erdialdera, Gabonak zirela-eta Arrasatera itzuli zen Jon: “Bidaia oso merkea izan zen, tasak baino ez genituen-eta ordaindu. Norvegiatik Londresera joan ginen, eta lau egun egin genituen han, lagun batzuen etxean. Gero, Londrestik Biarritzera, eta handik etxera”. Gabonak gustura eman zituen Arrasaten, baina urtaririlean Norvegiara bueltatu behar: “Hasierako egunak gogor samarrak izan ziren. Hemen, neguan argi asko izaten dugu, eta Norvegiara itzultzerakoan ilunpera bueltatu nintzen”. Gabonetako oporrak amaitu berri, Norvegiako iparraldera bidaiatxo egiteko asmotan ziren Jon eta beste bi lagun: “Irakasleari Norvegiako iparraldea ezagutu nahi genuela esan genion, eta lasai joateko esan zigun”. Esan eta egin, hamabost eguneko bidaia egin zuten. Bergendik hasi eta Tromsora: “Bidaia trenez egin genuen, eta Tromsora bidean hainbat herri bisitatu genituen. Lofoteko uharteak ikusteko modukoak dira. Iparraldeko Karibea dela esango nuke, hotz egiten duen Karibea”. Jonek bazuen Tromsora joateko arrazoi berezi bat, Arrasateko lagun bat han dago-eta. Datorren astean ere Norvegiako negu hotzean jarraituko dugu”.

XABIER URZELAI



Neguan bazter guztiak zuri-zuri geratzen dira.



Maritxu Kajoi
egunerako makilatu eta orraztu
20 €tik aurrera

ZATOZI!

Maalako Errabala, 21-B
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Aretz
Taberna

Markole 5
943 79 14 67
ARETXABALETA

MEHER

Bañez doktorea, 1 • ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85

Marixutarako
prest!



ZAHARRENETXETIK



Sukaldari abilak aurkituko ditugu egunean Abaroa elkartearen egingo den Gastronomía Txapelketan.

ARRASATE PRESS

Eguenean eskualdeko erretiratuen Gastronomía Txapelketa egingo dute

IKER BARANDIARAN

Betidanik esan ohi da Euskal Herriko gastronomía oso ona dela eta jatetxe ezagunetan prestatzen dituzten jaki goxoez gain Euskal Herriko etxebizitza gehienetan oso ondo jaten dela. Dena dela, baliteke egungo bizimodu azkar eta estresagarriaren ondorioz batzuek ondo jateko ohitura galdu izana.

Hala ere, orokorrean ondo jaten da eta plater goxoak prestatzeko gaitasuna eta ezagutza ere egon badago, noski. Zalan-tzarik barik, emakumeak dira sukaldari gehien aritzen direnak, baina hainbat gizon ere ibiltzen dira lapiko eta zartagin artean. Euren trebezia jendaurrean erakusteko, besteak beste, orain dela urte batzuk San Juanetan bakailaoa prestatzen zuten Seber Altube plazan.

IBARREKO ERRETIRATUAK LEHIAN

San Juanetako txapelketa hura kendu egin zuten arren, herriko eta, oro har, ibarreko erretiratuek

urtero-urtero Gipuzkoako erretiratuen Gastronomía Txapelketa eutsi diote. Aurtengo hitzordua egunean, irailaren 11n, izango dute. Eguen arratsaldean, ibarreko Abaroa erretiratuen elkartearen, Abaroako, Antzuolako, Basotxoko (Aretxabaleta), Toki Argiko eta Uribarriko bikote bana

Ariketa fisikoko ikasturte berria

Hasi berri den ikasturtean ere Abaroa elkarteak ariketa fisikoko eskolak Saioa gimnasioan antolatu ditu. Eskolak irailan hasiko diren arren, oraindik ez dute eguna zehaztu.

Aurretik eskola horretan parte hartzen zutenek Abaroara jo beharko dute jarraituko dutela ziurtatzeko, baita lehenengo aldiz joan gura dutenek ere.

lehiatuko dira. Patatak Errioxa-ko erara prestatu beharko dituzte, eta plater onena egiten duen bikoteak Gipuzkoako erretiratuen Gastronomía Txapelketan hartuko du parte. Hain zuzen ere, bikote horrek gure ibarra ordezkatu du. Bikote bakoitzak hiru kilo patata eta txorizoa tamainan erabiliko ditu. Artikulu hau idazteko unean ez zekiten epaimahaia zeintzuek osatuko zuten. Zorte on, arrasatearrei!!

HONDARRIBIRA TXANGOIA

Erdiguneko elkarteak, Abaroak, beste ekimen batzuk prestatu ditu. Irailaren 17an Hondarribira txangoa antolatu du. Bidean hamarretakoa egingo dute, Hondarribia bisitatuko dute, eta Oiarzungo Gurutze-Berri jatetxean bazkalduko dute. Arrasatera bueltan, Donostian geldialdia egingo dute. Interesatuak irailaren 9an eman beharko dute izena, eta 15 euro ordaindu.

Bestalde, Lloret de Marrera joateko izena eman zutenek bulegora jo beharko dute dagokien txartela hartzerantz eta ordaintzera.

LABUR

Irailan hainbat berbaldi interesgarri antolatu dituzte Toki Argi elkartearen

Santa Marinako Toki Argi elkartearen erretiratuek opor ostea gogor hasi gura izan dute. Ikasturtea hasteko, hainbat berbaldi antolatu dituzte. Besteak beste, irailaren 16an, martitzena, jabego horizontalaren gainean egingo dute berba; besteak beste, etxebizitza eta auzo-komunitateen gainean. Irailaren 26an, berriz, zoriontasuna izango dute berbagai. Bi berbaldiok 17:00etan izango dira.

Toki Argi elkarteak Costa Brava joango dira irailaren 27tik urriaren 3ra bitartean

Arrasatear askok oporrak ia ahaztuta izango ditugun sasoirako, irail bukaerarako, Toki Argi elkartearen erretiratuek Costa Brava egongo dira. Irailaren 27tik urriaren 3ra -Maritxu Kajoi eguna- bitartean han izango dira. Egun horietan erretiratuek lasai egoteko eta eguzkia hartzeko denbora izango duten arren, Katalunia inguruetakoa hainbat herri bisitatzeko asmoa ere badutela eman dute aditzera. Besteak beste, honako herriak ikusiko dituzte: Figueres, Ampuria Brava, Girona, Bartzelona eta Tossa de Mar.

Bakoitzak 220 euro ordaindu behar zituen, eta dena prezio horren barne dago. Dagoeneko beteta dago autobusa.

Irailaren 15ean hasiko dira Abaroa elkarteak ikasturterako antolatu dituen ikastaroak

Abaroa elkarteak laster hasiko ditu ikasturte honetako ikastaroak. Hala, irailaren 15ean hasiko dira gimnasia, margo eta brodatu eskolak. Ikastaro horietan parte hartzeko interesa duten elkarte-ko bazkideek eta beste edozein erretiratut bulegoan eman beharko dute izena ahalik eta lasterren. Abaroako bulego orduak, astelehenetik egubakoitzera bitartean, honako hauek dira: 18:00etatik 20:00etara. Bestalde, oraindik ikasturtearen areto dantza ikastaroa abian jarri gura dute. Ikastaro hori egin ahal izateko, areto berria prestatu dute. Interesatuak jo Abaroako bulegora eta eman izena.



Uribarriko erretiratuen afari-omenaldia

Urtero moduan, Uribarriko auzo-alkatetzak auzoko erretiratuentzako afaria eta omenaldia antolatu ditu. Datorren egubakoitzean, irailaren 12an, izango da, 20:30ean. Guztira 110 erretiratut hartuko dute parte. Afariaren aurretik, 19:00etan, Itxaropenaren Amaren elizan meza izango dute. /I.B.

BASATI
TABERNA
PINTXUAK, BORATAK ETA TRAGUAK
TEL. 943 711768

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40



Edertu

Ile apaindegia • Solariuma

Maritxu gau bereziko
orrazkerarik ederrena

San Andres auzoa Tel.: 943 79 04 28
ARRASATE



ARRASATE
Olaia Unamuno
Abuztuaren 22an, 1 urte.
Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Nekane Romero
Abuztuaren 21ean, 6 urte.
Zorionak! Aitaren eta amaren partetik.



ARRASATE
Paula San Miguel
Uztailaren 19an, 8 urte.
Zorionak eta muxu bat!
Gurasoak eta Beñat.



ARRASATE
Alaiur Alzelai
Abuztuaren 25ean, 2 urte.
Zorionak! Etxekoak eta laguntxoak.




ARRASATE
Milagros Beitia
Abuztuaren 21ean, urtebetetzea. Zorionak! Aita, Cesar, Sergio, Larraitz, Saioa.



ARRASATE
Ramon Azkarate
Abuztuaren 24an, urtebetetzea. Zorionak! Ama, Aitor eta Josu.



ARRASATE
Lourdes Ibabe
Abuztuaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak partetik.



ARRASATE
Juan Ramon Arriolabengoa
Abuztuaren 29an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Amaia Martinez
Irailaren 3an, 13 urte. Zorionak! Koadrilakoak.



ARRASATE
Iraitz Zabala
Abuztuaren 16an, 1 urte.
Zorionak! Etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Alba Bellido
Abuztuaren 26an, 8 urte.
Zorionak! Gurasoak eta ahizpa.



ARRASATE
Uxue Bellido
Abuztuaren 29an, 6 urte.
Zorionak! Gurasoak eta ahizpa.



ARRASATE
Izar Sanchez
Irailaren 6an, 1 urte. Zorionak! Etxekoak.



ARRASATE
Unai Agirre
Irailaren 8an, 3 urte. Zorionak! Etxekoak eta bereziki Naroa.

Adi!

Argazkiak emateko lekua:

Arrasate:

ARRASATE PRESS

Otalora Lizentziaduna 31.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurrá ARRASATE PRESSEn agertu ondoren. Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzeko komeni da.

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein da bizikleta gainean dagoen gizonezko horren ogibidea?
Arrastoa: artaziekin, labainekin eta antzerakoekin egiten du lan.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Coca-Cola
Bi litroko bi botila

2,29€ 381 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

VICTOR ARANArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Victor!
Galderen erantzun zuzena:
1981. urtean.

ARRASATEKOHISTORIA

On Pedro Bernardo Villarreal de Berriz zientzialaria

JON ANDER RAMOS


On Pedro Bernardo Villarreal de Berriz Andicano 1669 eta 1740 bitartean bizi izan zen. Pedro Villarreal Gamboa zuen aita; ama, berriz, Maria Saez de Andikano. On Pedro Bernardo Villarreal Arrasateko Andikanoaren jauregian (Monterronen) jaio zen eta han eman zituen bere bizitzako lehenengo urteak. Ikasketak Arrasaten, Bergaran eta Iruñean hasi zituen, eta gero, Salamancan jarraitu. Baina ez zuen gustuko hango lan egiteko modua, eta berehala itzuli zen Arrasatera. 1690ean Santiagoren Zaldunen Ordenako kide izendatu zuten. Beste kargu politiko batzuen artean, 1691n Arrasateko alkate izan zen. 1694an Lekeitioko Mariana Rosa de Bengolearekin ezkondu zen. Besteak beste, ola bi eta errotak eskuratu zituen emaztearengandik.

Saso hartan lurra, ola eta merkataritza ziren arlo nagusiak; jauntxoek kasuan, batez ere, lehenengo biak. Hala, gure pertsonaiak ere lan horri ekin zion; eta guztiz

Zientziak landu zituen: Matematika, Geometria, Trigonometria, Nautika...

Zientziak aplikatuta, erroten edo burdinolen funtzionamendua diseinatu zuen

adierazgarriak dira eraiki zituen kontrahormadun presak, diseinatu zituen arkitektura proiektuak, eraiki zituen itsasontziak, eta azken urteetan idatzi zuen *Máquinas hydraulicas de molinos, y herrerías, y gobierno de los Arboles, y Montes de Vizcaya* izeneko liburua. Batez ere, liburu hori da kontuan hartu beharrekoa, 1740. urte inguru-



PEDRO BERNARDO VILLARREAL DE BERRIZ LIBURUA

Mila liburu, dokumentu, mapa eta antzerako batu zituen, ia gehienak berak idatzitakoak.

ruan Madrilen 25 inprenta besterik ez zegoen-eta.

Europako mendebalean zebiltzan kultura haizeetara zabaldu zen eta gizon eginkorra izan zen On Pedro. Zien-

tziak landu zituen: Matematika, Geometria, Trigonometria, Nautika... Eta zientzia horien gaineko mila liburu, dokumentu, mapa eta antzerako gorde zituen, berak idatzitakoak.

Hala, zientziak aplikatuta, esate baterako uhaska mota berri bat asmatzeaz gainera, erroten eta burdinolen funtzionamendu osoaren diseinu berria egin zuen.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko irailaren 5a / 75. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Irailaren aurreneko domekan, etzi, Marixeka Eguna ospatuko dute

U.M.

Beste urtebetez, irailaren aurreneko domekarekin batera Marixeka Eguna ospatzeko sasoa iritsi zaigu. Eguerdi partean hasi eta iluntzera arteko ekitaldiak antolatu dituzte. Betiko moduan, besteak beste, dantza egiteko aukera izango da.

12:00etan hasiko da jaia, meza entzuteko orduan. Gero, Lagun Artean dantza taldeak saioa eskainiko du; eta 13:00etan, Vermouth dantza izango da, Maria eta Itziar Gardokik lagunduta. Bazkalor- duan, 14:00etan, antolatzaileek, Albiñako elkarte gastronomiko-ko kideek bazkaria egingo dute. Eta bazkalostean, 17:00etan, Gorritiren animalien txanda izango da. Bukatzeko, erromeria alai- a izango da iluntzera arte.



Albiñako elkarte gastronomikoak antolatu du, urtero moduan, Marixeka Eguna.

ARTXIBOA

Bigarren urtez 'Rallysprint'-a jokatu-ko dute Aramaion; urrian izango da

U.M.

Bigarren urtez *Rallysprint*-a jokatu-ko dute Aramaion. Azpiko Racing taldeak antolatu du. Datorren urriaren 11n izango da. 26,4 kilometroko ibilbidea egin beharko dute lasterkariak. Irailaren 29an hasiko da izena emateko epea eta urriaren 10ean bukatu.

Urriaren 11n, 15:30ean hasiko da *Rallysprint*-a; eta herriaren inguruan 26,4 kilometroko ibilbidea egin eta gero, 20:30ak inguruan bukatuko dute proba parte hartuko duten auto gidariak.

Turismo motako ibilgailuek parte hartu ahal izango dute Aramaio-ko lasterketa horretan: AX markakoak, R5 turboak, Mitsubishiren batek zein besteak...

Antolatzaileek, Azpiko Racing taldeko kideek, alegia, 40-50 bat lagunek parte hartuko dutela espero dute, Euskal Herri osotik etorritakoak.

IZENEMATEA ETA SARIAK

Lehen aipatutako moduan, irailaren 29tik urriaren 10era arteko epea zabaldu dute izena emateko. Hala, urriaren 6an izena eman dutenen zerrenda erakutsiko dute; eta lasterketaren egunean bertan jakinaraziko dute zein automobilek parte hartu ahal izango duen proban.

Horrelako probetan ohi denez, kirol epaileak ibiliko dira lasterketa egunean guztia zaintzen. Sariak dagokienez, Azpiko Racing taldeak 4.200 euro pasatxo inbertituko ditu sarietan.

LAGUNTZA HANDIAGOA

Azpiko Racing taldeko lauzpabost lagun ibili dira lasterketa antolatzen; baina, jakinarazi diguten, orain urte bi baino laguntza handiagoa lortu dute. Euren esanetan, herrikideak konturatu dira horrelako proba bat antolatzea zail samarra dela, eta batek baino gehiagok lagundu die aurtan; baita Udalak ere.



26,4 kilometroko ibilbidea egin beharko dute auto gidariak Aramaion.

AZPIKO RACING TALDEA

LABUR

Ikasliburuak erosteko dirulaguntza

2003-2004 ikasturtea hastear dagoen honetan, gogoratu beharra dago urriaren 15era arte ikasliburuak erosteko laguntza eska daitekeela. Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako edozein mailatan matrikulatuta dauden ikasleek eska ditzakete laguntzok, betiere, Araban erroldatuta badaude; izan ere, Arabako Foru Aldundiak ematen ditu dirulaguntza horiek. Hala, eskariak Diputazio-ko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak Gasteizko Samaniego kaleko 14. zenbakian duen bulegoan egin behar dira.

Orain, KZGunea herritarren eskura arratsaldean

Irailaren hasieran, 1etik 16ra arte, arratsaldean jardungo dute kultura etxe-ko KZGunea. Irailaren 17tik 30era bitartean, berriz, goizez egongo da zabalik: 09:00etatik 13:00etara. Interesa duenak udaletxera jo beharko du izena ematera; edo bestela, KZGunean ere jaso dezake informazioa. Horretarako, honako telefono zenbaki honetara deitu beharra dago: 945 44 54 36.

Hilaren amaiera aldera kantxen zozketa egingo dute

Kiroldegiko arduradunek jakinarazi diguten, datorren irailaren 25ean, eguena, kiroldegiko kantxen erabilerarako zozketa egingo dute. Arratsaldean izango da, 19:30ean. Hala, zozketan erabakiko dute urrian, azaroan eta abenduan zelan banatuko dituzten kiroldegiko instalazioak. Jakina, gero, abenduan edo urtarrilean beste zozketa bat egingo dute hurrengo hiru hilabeteetarako.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren araberako zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

TXEKIAKO ABESBATZA

Gaur, barikua, hasi eta datorren barikua arte, Arabako Nazioarteko Abesbatzen XXII. Astea izango da. Izenak esaten duen moduan, atzerriko abesbatzak etorriko dira Arabara, eta Arabako zenbait herritan emanaldia egingo dute; tartean, Aramaion. Hain justu ere, Txekiako Abesbatza izango da Aramaion, datorren eguaztenean, hilaren 10ean, 20:30ean. Txekiako Abesbatza 1969. urtean sortu zen; antzinako musika interpretatzeaz gain, gaur egungoa, jazz eta beltzek elizetan abesten dituzten kantuak ere interpretatzen dituzte.

Bestalde, Txekiako Abesbatzarekin batera, Esloveniako, Filipinetakoa, AEBetako, Poloniako, Errusiako, Bielorusiako eta Jugoslaviako ere etorriko dira. Barikuan, hilaren 12an, kontzertua emango dute guztiek Gasteizko Printzipal antzokian, 20:00etan.

UDAKO ZINEMA

Bihar, zapatua, *El Señor de los Añillos, las Dos Torres* emango dute, 22:00etan.

KIROLA

Plater tiroketako Kurtzeta-Gain I. Saria jokatu da bihar Kurtzetan

U.M.

Iraileko aurreneko asteburuan ohitura bilakatu da plater tiroketa egitea Aramaion. Aurten ere hala egingo dute. Bihar izango da, 15:30ean. Bestalde, esan beharra dago Aramaio taldeak lehenengo saria irabazi zuela Arabako Herri Mailako Txapelketan.

Hamar urte baino gehiagotan egiten ibili arren, aurten izen ofiziala ipini diote irailero-irailero Aramaion jokatzeko probari: Aramaio Kurtzeta-Gain I. Saria. Hala, bihar jokatu dute txapelketa hori Kurtzetan. 15:30etik 18:00etara bitartean eman beharko dute izena parte hartu gura dutenek, eta 20 euro ordaindu (15 euro bazkideek). Lehiaketa 15:30ean hasiko da.

Proba probintziala da Aramaio Kurtzeta-Gain I. Saria. Hortaz, interesa duen edozeinek har dezake parte, nahiz eta ara-

barra ez izan. 15 platerretara jokatu dute txapelketa. Eta irabazleendako sariak izango dira. Antolatzaileek, Kurtzeta-Gain elkarrekin, 600 euro inbertituko dituzte sarietan. Aurreikuspenen arabera, 60 bat tiratzaile etor litezke. Betiere, eguraldiak laguntzen badu, jakina.

AURTEN, TXAPELDUNAK

Bestalde, berri pozgarria dute Kurtzeta-Gain elkartek. Izan ere, aurten lehenengo postua lortu dute Arabako Herri Mailako Txapelketako 11. aldian. Hori lortzeko 11-12 bat zapatutan jardun behar izan dute plater tiroketan. Juan Luis Nafarrate Kurtzeta-Gain taldeko kideak kontatu digunez, urte luzez bigarren lekuan geratu eta gero aurten aurreneko postua lortzea oso pozgarria da. Hala, elkarteko zuzendaritzak eskerrak eman gura dizkie parte hartu duten tiratzaile guztiei. Batez beste 20 bat lagunek hartu dute parte probetan.



KURTZETA-GAIN ELKARTEA

Aurten aurreneko postua lortu du Kurtzeta-Gain taldeak Herri Mailako Txapelketan.

KULTURA

Aurten ere arrakasta handia izan dute Gasteizko organo emanaldiek

U.M.

Iazko esperientzia positiboa ikusita, aurten ere organo emanaldiak eta organoaren gaineko azalpen-gidak egin dituzte Gasteizko San Pedro elizan. Bi organo-jotzaile ibili dira lan horretan; bata Floren Untzueta aramaiarra izan da. Arrakastatsua izan da ekimena.

Uztaileko eta abuztuko azkeneko hamabostaldietan egin dituzte ekimenok San Pedro elizan. Ikusita bisitari askok oso gustuko zutela eliza bisitatu bitartean organo musika entzutea, iazko abuztuan ekimen berezia abiarazi zuten: organo emanaldi laburrak egin eta organoaren gaineko azalpenak eman. Iaz egundoko arrakasta lortu zuen ekimenak. Eta aurtengo udan errepikatu egin dute. Hala, Floren Untzueta emandako datuen arabera, aurten, batez beste, 2.000 lagunek bisita izan dute San Pedro elizan. Eta organoaren gainean eman diren eskoletan edo hitzaldietan, berriz, 650 bat lagun izan dira. Bisitari gehienak uztailean egon dira, baina abuztuan ere izan dute lan dezente. Gainera, leku askotako herritarrek hartu dute parte ekimenean: ingurukoek (Arrasate,



SAN PEDRO ELIZA

San Pedro elizako organoa 1925. urtekoa da; Floren Untzueta aramaiarra da eliza hartako organo-jotzailea.

Bergara...); urrunagokoe (Alacant); eta oso urrunekoe (Brasilgo talde bat ere izan da).

BI ORGANO-JOTZAILE

Lehen aipatutako moduan, bi organo-jotzaile ibili dira organo

emanaldiak egiten eta eskolak ematen: Isabel Ruiz de Larrinaga bata eta Floren Untzueta aramaiarra bestea. Horrez gainera, Euskal Herrian izen handia duen Daniel Oartzabal organo-jotzaile gasteiztarrek kontzertu bere-

zia eskaini zuen.

Gasteizko udako turismo kanpainaren barruan sartu dute San Pedro elizako ekimena. Hala, Gasteizko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren babesarekin izan du.

ERRETRATUZAHARRA

Fagorrek Libian lantegia izan zueneko



Fagor Arrasate kooperatiba ekarri dugu oraingo astean argazki zaharraren atalera, haren gaineko argazki bitxia aurkitu dugu eta orain gutxi argitaratutako liburu baten.

Fagor Arrasate Kooperatiba Elkarteak 1957. urteko ekainaren 14an eratu zuten, On Jose Maria Arizmen-diarrietak idatzitako eratze aktaren bitartez.

Apurka-apurka, Talleres Arrasate erreferente bilakatu zen makina ekoizleen artean. Hala, Ulgorren bideari jarraituz, Europara jo zuten lizentzia bila. Besteak beste, 70eko hamarkadan Libiako Operazioari ekin zioten. Kontua da Libiako gobernuak Arrasateri esleitu ziola han enpresa bat zabaltzeko proiektua. 1972. urtea zen. Garrantzitsua izan zen hura kooperatibarendako, bai ekonomikoki (guztira, 650 milioi pezetako operazioa izan zen), baita konpetentziari aurre hartu eta kutsu internazionala zuen proiektua lortu zutelako ere. Libian guzti-guztia egin zuten mondragoeta-

rrek: lantegia bera (Arrasateko igeltseroak eraman zituzten lantegia bukatzeko) eta horren ostean, lantegian egin beharreko lana (tutuen fabrikaziorako lantegia zen). Behin baino gehiagotan, Arrasatetik joandako 20-30 lagun egoten ziren Libian. Horrez gainera, langile libiarrak

Arrasaten izan ziren, ikasten. Lau urtez egon zen Fagor Libian; tartean, bisita berezi bat jaso zuten: argazkian ikusten duzuen bezala, Fidel Castro Libiako lantegia bisitatzen egon zen. Instalazioarekiko eta funtzionamenduarekiko interesa azaldu zuen Kubako agintariak.

Eta Libiako lantegia zela eta, Arrasaten arabiar kulturaren gaineko jardunaldiak izan ziren.

Argazkia eta informazioa: Arrasate, kooperatiba baten ibilbidea liburua.
Urtea: 1970eko hamarkada.

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Zerrajerak eraikitako eliza

Arrasate, Kooperatiba baten ibilbidea liburuan, Arrasateko hainbat argazki zahar aurkitu ditugu. Kooperatibaren gainean idatzitako liburuak dioenez, Zerrajerak lantegiak langileei hainbat abantaila eskaintzen zizkien. Horren adibide dira Maalako etxeak (1925) eta Zigorrolako eliza (1945). Langileen beharrak asetzeko eraiki zituzten.



≈ 1945

1943an, Zerrajerak 20 etxebizitza egin zituzten Zigorrolan, eta arduradunak berehala ohartu ziren eliza baten beharraz.



2003

Auzoko baserritarrek ere aspaldi gura zuten auzoko santuari eskainitako eliza, eta 1945ean eraiki zuten San Isidro eliza.

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711768

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.


Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Ikastetxeko irakasgaien laguntza-eskolak



CIMen
gogor egiten zaizkizun
irakasgaiekin lagunduko
dizugu.

Astelehenetik
ostiralera, 17etatik
aurrera

Eta Hizkuntzak denontzat

- Haur, gazte eta helduentzat
- Maila guztiak eta ordutegi malguak
- Mediateka zure esku dohainik
- Club CIMeko ekintzak
- Atzerriko ikastaroak eta ingeleseko udalekuak
- Multimedia sistemak
- Cambridge Unibertsitateko azterketak gure zentroan



Arrasate - Gipuzkoa
Araba etorbidea,4 Tel.: 943 71 20 55
e-mail: secretaria@cim-idiomas.com
www.cim-idiomas.com



ingelese euskara hizkuntza matematika

Gida Komertziala 2004, abian!


Debagoieneko gida osatuena

2004. urteko Gida Komertziala prestatzen hasi gara.
Laster pasatuko gara zure denda, enpresa
edo komertziotik.

Hurrengo egunotan, **Samin Larrañaga** publizista
izango da zurean.



Samin Larrañaga



INFORMAZIO GEHIAGO: 943 71 23 91

GRUPO RKUZ 1950-2003

Zure etxea da



Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

